



# Bitartekotza eta gatazken konponbidea


**Programazioa. Gida didaktikoa**

LEONOR PÉREZ CASAJÚS



2012 ZUREKIN  
BAGOAZ AURRERA

 Nafarroako  
Gobernua



***Bitartekotza eta gatazken konponbidea***  
***Programazioa. Gida didaktikoa***

LEONOR PÉREZ CASAJÚS



Nafarroako Gobernua  
Hezkuntza Departamentua

Izenburua:

**Bitartekotza eta gatazken konponbidea.  
Programazioa. Gida didaktikoa**

Egilea: Leonor Pérez Casajús

© Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua

Diseinu grafiko eta marrazkiak: Asis Bastida

Inprimaketa: Novatext

ISBN: 978 - 84 - 235 - 3182 - 0

Lan osoaren ISBNa: 978-84-235-3180-6

L.G.: NA - 2350/2009

Bultzatzailea eta banatzailea:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa

Navas de Tolosa kalea, 21

31002 IRUÑA

Telefonoa: 848 427 121

Faxa: 848 427 123

fondo.publicaciones@cfnavarra.es

www.cfnavarra.es/publicaciones



**Bitartekotza eta gatazken konponbidea** liburu honek, Leonor Pérez Casajús Iruñeko “Navarro Villoslada” BHiko irakasleak prestatua, berak 2008-2009 ikasturtean DBHko 1, kurtsoko hezkuntza Arreta emateko erabili zituen materialak biltzen ditu.

Berak aitortzen duenez, bilduma honen asmoa, besteak beste, etapa baten hasieratik hezkuntza oinarriak ezartzea da bitarteko lanean aritu nahi duten ikasleak prestatzeko, DBHko 2. kurtsotik aurrera ikastetxearen bitartekotza taldean sartu ahal izateko moduan.

Koaderno hauek, bai irakaslearena nola ikaslearena, Hezkuntza Departamentuaren lan ildoetan txertatzen dira, Nafarroako ikastetxeetan bizikidetzaren irakastea helburu duten proiektuak zabaldu eta garatu nahi baitituzte.

Liburu honek, bada, pertsonen arteko harreman positiboetan eta gatazkak konpontzeko teknikak ezagutu eta gauzatzean oinarritu edukiak eta proposamenak biltzen dituelarik, badirudi zentzu orokor bat hartzen duela, osotarakoa, hezkuntza barruti horretan, irakasgai konkretu baten eremuaz haratagokoa, zeren gainera irakasgai hori ez baitute ikasle guztiek ikasten.


Egileak baieztatzen duenez, aukeratu dituen edukiak prestatzerakoan, bereziki hartu ditu kontuan harremanak eta portaerak hobetzea helburu dutenak, eta hemen egiten den planteamenduak portaeraren kanpoko eta formazko alderdiak ez ezik, balioak, jarrerak eta arauak ere barrentzea du helburu.

Bizikidetzaren positiboa iristeko –eta hau da Leonor Pérez Casajúsen ideietako bat– ez da aski “trebetasun sozial sail bat eta gatazkak konpontzeko hainbat teknika ikastea, hala nola elkarrizketa, negoziazioa eta bitartekotza; aitzitik, sinemen osoz hartu behar da giza konpromiso bat, pentsamendua gatazkak konpontzeari aplikatzean eta norberaren eta besteren emozioak maneiatzen entrenatzean oinarritua, dena pertsonaren bilakaeraren eta haren garabide etiko moralaren testuinguruan. Hartarako, hainbat jarduerak proposatzen dira; haien helburua da osotarako hezkuntzaren faktore kognitibo, emozional, sozial eta etikoa irakatsi eta ikastea. Ikasketa horiek dira gatazkak konpontzeko trebetasunen eta tekniken oinarria eta bultzagarria, eredu inteligente eta baketsu batetik ikusirik, hau da, pentsamendua aplikatuz eta indarkeria baztertuz.”

Bokaziozko irakaslea den neurrian, material hauen egileak esperantza du ikasleek, nerabe bakoitzak, ikastetxeetako hezkuntza eremuetan “ikas dezan bizitzan nola joka bere gatazkak bere buruz konponduz. Eta ezin izaten badu egin, prestatu egiten da bitartekotza prozesuetan parte hartu ahal izateko”.

Espero dugu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasle taldeek eta institutu etako zuzendariak material hauek beren hezkuntza proiektuetan txertatu eta curriculumaren arlo guztietan sartu ditzaten. Horretara esku artean duzuen liburu honek zentzua eta balioa hartuko du osotarako hezkuntza preziatu –eta maitatu. Egiten dutenen aldetik, askatasunez, gizakien duintasunean sinesiz, urte erabakigarri hauetan beren nortasunaren oinarriak eta gizartean bizitzeko irizpideak itxuratzen dituzten nerabe hauen duintasunean.

**Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea**  
Hezkuntza Kontseilaria





# *Programazioa*





# Sarrera

*Irakasgai honen helburua da DBHko ikasleak gizartean bizikidetza positiboa izateko moduan heztea. Testuinguru horretan txertatzen da gatazkak modu inteligente eta baketsuan konpontzen ikasi eta irakasteko asmoa.*

*Ikasketen arloan bide ematen du erantzukizunarekin bastean askatasuna sustatzeko, ikaskuntzarako giro egokia sortarazteko, ikasketekiko konpromisoa hartzeko, nork bere buruari ezarritako jomugak lortzeko behar diren baliabideak hautatzeko, etab. Hezkuntza arloan, besteak beste kidekoen arteko laguntzaz elkartasuna garatzen da, inklusioa, errespetoa, harreman baikorrak, gatazken konponbide zentzuzko eta baketsua eta bitartekotza, ikastetxeko bizitza sozialaren mesederako.*

*Printzipioz, Hezkuntza Arreta (HA)ko ordu-eremurako pentsatua eta itxuratua dago, Erljio irakasgaiaren hautabidea baita.*

*Proposamen didaktiko hau curriculum eremu baliagarri bat izatekotan planifikatua da, gizakiak bere osotasunean prestatzeko behar dituen alderdi guztiak indartze aldera. Horrek ez du esan nahi Erljio irakasgaiak alderdi horiek garatzen ez dituenik, baizik Hezkuntza-laguntza*

*hautatzen duten ikasleek ere alderdiok garatzeko aukera izan behar dutela.*

*Bestalde, zilegi da proposamen hau osorik nahiz partez bestelako eremuetan ere ezartzea, hala nola Hiritartasunerako Hezkuntzan, Tutoretzan edo baita Ikasleak prestatzeko ikastaro berariazkoetan ere.*

*Egia esateko, programazio hau osatzen duten edukiak, beren izaeragatik, ez lirateke “irakasgai bihurtu” behar, aitzitik, arlo desberdinetako curriculumak osatu beharko lituzkete. Ikuspegi hau baztertzeke, gune honek bizikidetza era sistematikoan ikasteko lagungarri izan nahi du.*

*Hezkuntza etapa baten hasiera-hasieratik ikaskuntza oinarri seguruak eta irmoak ezarri behararengatik proposatu da hezkuntza-laguntza DBHko 1. mailan. Beste alde batetik, beren prestakuntzari dagokionez, ikasleak adin honetan hagitz ulerberak dira.*

*Horrek ez du eragozten irakasgai hau DBHko 2. edo 3. mailan ematea. Kurtso horietako ikasleek irakaslearen laguntza gutxiago beharko lukete eta etekin hobeagoak aterako lituzkete gogoeta eta esperientzietatik.*

## Xedeak eta edukia

### 1. Ikastetxean bizikidetzaren aldeko giro positiboa hedatzen laguntzea

- Klaseko taldearen kohesioa eta kooperaziozko eta elkartasunezko ikaskuntza. Elkarrekiko ezagutzatik kooperaziora.
- Enpatia ingurune hurbilago batean garatzea eta ondoren urrunagoko gizarte guneak kontuan hartzea: besteak.

### 2. Ikasleen osotasunezko hezkuntzan aitzina egitea, alderdi kognitiboak, emozionalak, sozialak eta moralak lantzen dituen gai baten bitartez

- Gatazka. Estilo desberdinak gatazkak konpontzeko.
- Gatazkak konpontzera zuzenduriko bost pentsamenduak. Enigmak eta pentsamolde sortzailea.
- Emozioen erregulazioa. Haserrearen kontrola.
- Gizarte eta komunikazio esparruetako trebetasunak: entzute eraginkorra eta mezuak lehenengo pertsonan.
- Balioak eta arauak: ikaskuntza morala. Dilema moralak.

### 3. Ikasle bitarteko berriak prestatzea

- Bitartekotza, mota bateko gatazkak konpontzeko baliabidea.
- Faseak eta teknikak.
- Bitartekotza prozesu batean sor daitezkeen arazoak.
- Konpromisoak eta hitzarmenak.

### 4. Bitartekotzako eta gatazkak konpontzeko taldearen baitan laguntza emanen duten ikasleen sare bat sortzea

- Zer den ikasle laguntzailea, eta zer ez den.
- Ikasgelan egin daitezkeen lanak.
- Bitartekotzako eta gatazkak konpontzeko taldearekin har daitezkeen konpromisoak.

## Edukien denbora banaketa

Eduki gehienak modu errepikakorrean eta maiztasun desberdinetan lantzen dira ikasturtean barna: klaseko egutegia, testuen gaineko lana, mezuak lehen pertsonan idaztea, gatazkak jorrazteko moduak, entzute eraginkorra, enigma eta dilema moralak...

Horregatik, sekuentziarioa da lan-koadernoan hiru zatitan bereizi eta zatiok hiru ebaluazioei egokitzearen emaitza.

Elkarren jarraian doazen eduki horiez gainera, ebaluazio bakoitzean eduki berariazko hauek sartzen dira:

### 1. ebaluazioa

- Irakasgaiaren aurkezpena.
- Harremanetarako eta bizikidetzarako dinamikak.
- Lan kooperatiborako sarrera.
- Bizikidetzaren arauketa: ikasgelako araubidea, balioetan oinarriturikoa
- Gatazka. Analisia eta konpontzeko estiloak.
- Kidekoen arteko laguntza.
- Entzute eraginkorra.
- *La buena suerteren* irakurketa.

### 2. ebaluazioa

- Emozioen hezkuntza. Haserrearen kontrola.
- Enigmak: pentsamendu alternatiboaren garapena.
- Dilema moralak.
- Zineforuma: *El Señor de Greystoke*.
- Baieztapenezko mezuen igorpena.

### 3. ebaluazioa

- *Kidekoen arteko jazarpena*.
- *Bitartekotza*.
- *Laguntzaileen sarea*.

## Metodologia

Material hau jarduera zerrenda batek osatzen du, anabasa itxura izan dezakeena; alabaina, bada planteamendu koherente bat, zeina osotasunezko hezkuntzaren lau zutabeak modu errepikakor eta progresiboan lantzean oinarritzen baita. Taldea handia baldin bada, zenbait jardueratan metodologia berbiderra daiteke ahozko-tasunetik eta taldekotasunetik bakarkako idazketara; horrela, lan giroa malguago bilakatzen da.

Lana taldean egin beharra, parte hartu eta eginkizunak eta xedeak partekatu beharra dagoenez, metodologiaren baitatik hezkuntza sozioemozionaleko eta balioen hezkuntzako alderdiak lantzen dira.

Koadernoko jardueri erreparatuz gero, hauteman daiteke metodologia era askotakoa dela: beti ere eraginkorra eta parte-hartzailea; noiz kooperatiboa (lana taldeka egitea, debateak, harremanetarako dinamikak), noiz bakarkakoa; beste batzuetan lana bikoteka egitea erabaki daiteke.

Horrela, irakaslearen lanak hiru alderdi ditu:

- Elkarlaneko jarduerak bideratu eta dinamizatzea, laguntza emanez eta, bidena-bar, kontrolatuz.
- Bakarkako lanerako eta adierazpen teorikoetarako jarraibideak ematea. Jardueren enuntziatuei dagokienez, orokorrean, ikasleek irakur ditzatela komeni da, inongo laguntzarik gabe ulertzen ahaleginduz. Ulertzen ez dena ondoren adieraziko da.
- Jardueren zuzenketa egitera ikasle guztien partaidetza sustatzea, txandaka erantzunez: guztiek ozenki irakurriko dute nork bere erantzuna. Taldea handia baldin bada, “txanda erdiak” antola daitezke: jarduera batean klaseko erdiek ihardetsiko dute eta hurrengoan beste erdiek.

Jarduera bakoitzaren zentzuari eta mekanikari buruzko adierazpenak “Gida didaktikoan” daude bilduak. Hala ere, honako honetan ikasturtean zehar errepikatzen diren jarduera batzuen metodologia azaltzen da.

**Arrainontzia** talde-lan batean ados jartzeko teknika gisa erabiltzen da. Talde bakoitzeko bozeramaileek beren iritziak azaltzen dituzte erdian ezarritako biribil

gunetxo batean. Gainerako ikaskideak inguruan jarririk, adi egonen dira eta ixilik une oroz, eta arrainontzian esaten denari zerbait erantsi nahi izanez gero, modu bakarra nork bere bozeramaileari idatzizko ohar bat pasaraztea izanen da.

**Magiazko mikrofonoaren bidezko debateak:** dilema moraletan edo beste edozein motatako debate edo eztabaidetan, ikasgelan puntu bat ezarriko dugu eta horri “erabat ados nago” izena emanen diogu, eta kontrako aldean “ez nago batere ados” izenekoa. Bi puntu horiek irudipenezko lerro baten bidez loturik daude, zeinean adostasun/desadostasun maila desberdinak adierazten ahal diren. Ikasle bakoitza irudipenezko lerro horretan kokatuko da, aurrerago zein atzerago, batbederak duen iritziaren arabera. Ondoren, puntu desberdinetan kokatzen direnei beren posizioa justifika dezatela eskatuko diegu.

Inork ere ezin izanen du hitza hartu mikrofonoa eskuratu aitzin (kasurako, boligrafo gorri bat). Xehetasun horren bitartez debatea ordenatu nahi da, horrela inori hitza moztu ez dakion eta hitza hartzeko txandak metatu ez daitezen.

Gainera, arretazko entzutea eta parafraseoa praktikatzeko aldera, mikrofonoa ez du ezekin ikaslek eskuratuko aurrekoak esandakoa hitz gutxitan laburtu ezean.

Ikasleak tokiz alda daitezke ikaskideen argudioak entzun ahala hasierako iritzia aldatzen duten heinean.

**Ideien jarioa edo jasa** deitzen zaio ideiak elkarren artean eta modu sortzailean eratzeari. Arrazionaltasuna alde batera utzirik (hasieran ez dute baloraziorik egin behar, ez iritzirik eman ezta irtenbideak hautatu ere), askatasun osoa dute modu sortzaileagoan pentsatzeko eta horrela beren aukerak zabaltzeko.

Horren xedea da pentsamendu sortzaile, alternatibo eta laterala izateko teknikak irakastea, horien bidez hobetuko baitituzte gatazkak konpontzeko prozesuak.

**Lan kooperatiboa** premiazkoa da, didaktika eta hezkuntza arloko onura handiak ekartzen baititu. Hori dela eta, lan mota hori gatazkak kudeatzeko prestakuntzan itsasten da. Hala eta guztiz ere, ikasgelako plangintzan

maiz saihesten dugu, ikasleak gaizki portatzen direla eta denbora alferrik galtzen dutela susmatzen baitugu. Eta horixe da, izan ere, lan mota hori sarritan erabili beharraren arrazoa: ikasleek jakin ez arren ona bada erakutsi beharko zaio. Gakoa abantailak ezagutzean datza, etekina atera ahal izateko, bai eta berekin ekar ditzakeen desabantailak ere, aurrea hartu ahal izateko.

### **Abantailak**

- Motibazioa sortarazten du esplikazioak entzutearen eta ariketak bakarka egitearen dinamika hausten baitu, kontuan hartzen badugu ikasleentzat dinamika aspergarria eta betiberdina dela.
- Edukien ikaskuntza aberasten du, kidekoen arteko laguntzaren bidez.
- Ikasleen antolatze ahalmena hobetzen du.
- Jarrerak eta balioak praktikatzeko bidea ematen du: errespetuz entzutea, lankidetzatza, ordena, erantzukizuna...

### **Desabantailak**

- Ikasgela kudeatzea zailagoa da, zalaparta eta nahasmena areagotzen baita.
- Bakarkako lanak baino denbora gehiago eskatzen du.
- Oso ongi prestatzeaz gainera jarraibideak zehatz ezarri behar dira.
- Ebaluazioa zaildu egiten da.

### **Ikasgela kudeatzeko baliabideak**

Abantailak optimizatzeko eta desabantailak txikiagotzeko aukerak badaude:

- Jarduteko modua irakasle taldearekin adostea, lan mota hori normalizazioa errazten duen ohitura bilaka dadin. Aski da talde txikitik lantzea, hots, arlo horretan aritzeko benetan prest dauden irakasleekin bakarrik.
- Talde finkoak eratzea, talde lan bat proposatzen den bakoitzean denborarik gal ez dadin, non ez den ikasle batzuek integrazteko edo elkar ezagutzea hobetzeko taldeak aldatu beharra suertatzen.
- Komeni da hiruzpalau lagunez osatutako taldeak eratzea, antolatze lana errazten delako, taldean guztiek eginkizun bat dutelako eta elkarri aditzeko oihu handirik egin beharrik ez dutelako. Asmo horrekin, ahotsa gehiegi ez altxatzeko, alegia, hiru edo lau lagun horiek mahai baten inguruan bil daitezela proposatzen dugu, horrela, elkarren artean hurbilago egonik ez dute garrasika ibili beharrik izanen.
- Taldea ongi antolatze beharrezkoa da taldekide batek (idazkariak) hartzen diren erabakiak biltzea, beste batek (behatzaileak) lan prozesuari buruzko oharrrak hartuko ditu, gero azken txostena prestatzeko, eta beste bat bozeramailea izanen da, lana bateratzeko, eta, aldi berean, moderatzaile gisa arituko da. Lau laguneko taldeak eratzen badira, azken bi eginkizunok banatu egingen dira. Nahitaezkoa da taldekide guztiek beren eginkizuna izatea.
- Lana egiteko jarraibideak taldeak eratu aitzin emanen zaizkie, izan ere taldeak eratuz gero taldekideen artean solasean hasteko joera dute irakaslea jarraibideak adierazten ari den bitartean.
- Irakasleak, zernahi arrazoiengatik, lana eten nahi badu, aldezturik abisatu die ikasleei ukabila jasoz eta ezpainak hertsiz. Era berean, zeinua ikusten dutenek lana eten eta isilik geldituko dira. Beste taldekideek hori ikusirik gauza bera egingen dute, eta ikasgela osoa isilik geldituko da berehalaxe.
- Irakasleak taldeen lana gainbegiratu du, ikuskapenaren helburu bikoitzaz ohartaraziz: laguntzarik behar duten jakitea eta eginkizunean duten parte-hartzea ebaluatzeko behar dituen datuak erregistro orrietan idaztea.
- Ados jartzeari dagokionez, arrainontziaren edo magiazko mikrofonoaren teknika proposatzen dugu.

## Materialak

### Ikasleen ardurapean:

- Hezkuntza Jardueraren Koadernoak.  
*La buena suerte*, Alex Rovira eta Fernando Trías De Bes (2004). Urano. Bartzelona.

### Irakasleen ardurapean:

- Klaseko egutegia, domino fitxak, tabu-jokorako fitxak, gutun-azalak, kolorezko gometsak.
- Zineforumeko *El Señor de Greystoke* filmea. Kidekoen arteko jazarpenari buruzko *Un día más* izenburuko bideoa. *Bitartekotzari* buruzko bideoa. Power-Point aurkezpenen bilduma.

## Ebaluazioa eta errekupeazioa

Ebaluazio bakoitzean, ikasle guztiei txosten bana egiten zaie, erdietsi dituzten lorpenak bilduko dituen, kurtsoko xedeekin alderatu ahal izateko.

Ebaluazio bakoitzean landutako edukien eta ikasturtean zehar errepikatzen diren edukien kontrol-proba bat bederen egiten dute ikasleek. Halaber, galde-sorta bana emanen zaie, ikasle bakoitzak bere burua balora dezan, bai eta irakasgaia ere.

Bilakaera egokirik izan ez duten ikasleen kasuan errekupeazio prozedura hauek erabiliko dira, adierazten den hurrenkeran:

1. Ikasgelako araubidearen gaineko ezagutza eta hausnarketa egitea, ikasturtearen lehenbiziko astean.
2. Gogoeta eta autonomia moral progresiboa sustatzearen aldeko ohartarazpen positiboak erabiltzea.
3. Aldi bateko atsedena (eten duen jarduerak dirauena). Ikasleak ez du jarduera horretan parte hartuko eta besteek nola ari diren ikusiko du.
4. Behin betiko atsedena (eskola aldi osorako), zeinean gogoeta-fitxa beteko baitu eta ondoren irakaslearekin horretaz mintzatuko.
5. Hitzarmenak eta konpromisoak ikasgela barnean.
6. Buruz buruko elkarrizketa, konpromisoak finkatzeko.
7. Elkarrizketa familiarekin eta jakinarazpena tutoreari.
8. Ikastetxeko Araudian ezarritako zigorrak.

## Ebaluazio txostena. Hezkuntza-laguntza

Ikaslea

### 1. Bizikidetzeta eta laneko arauak betetzea:

- 1. Anitzetan ez ditu arauak betetzen, eta ondorioz giro makurra eta harreman ezkorrak sortarazten ditu klasean.
- 2. Batzuetan ez ditu arauak betetzen.
- 3. Arauak ia beti betetzen ditu.
- 4. Arauak betetzen dituen laguntzen du taldean giro ona izan dadin.

### 2. Parte-hartzea:

- 1. Ez du parte hartzen.
- 2. Gutxitan hartzen du parte.
- 3. Parte hartzen du eta laguntzen du egokiro.

### 3. Edukiak bereganatzea:

- 1. Nekez.
- 2. Normaltasunez.
- 3. Oso ongi.

### 4. Ohar orokorrak:

Data eta sinadura

Aitarene edo amarene sinadura

## Azken ebaluazioaren txostena. Hezkuntza-laguntza

Ikaslea .....

### 1. Bizikidetzeta eta lan arauen asimilazio maila:

- 1. Zenbaitetan ez ditu arauak betetzen, eta ondorioz giro makurra eta harreman ezkorrak sortarazten ditu klasean.
- 2. Batzuetan ez ditu arauak betetzen.
- 3. Arauak ia beti betetzen ditu.
- 4. Arauak betetzen ditu, eta horrek laguntzen du taldean giro ona izan dadin.

### 2. Parte-hartzea:

- 1. Ez du parte hartzen.
- 2. Gutxi hartzen du parte.
- 3. Parte hartzen du eta laguntzen du egokiro.

### 3. Edukiak bereganatzea:

- 1. Nekez.
- 2. Normaltasunez.
- 3. Oso ongi.

### 4. Bitartekotzak egiteko ahalmena 1 2 3 4

### 5. Ohar orokorrak: .....

.....

Data eta sinadura

Aitaren edo amaren sinadura

## Materialen jatorria

Gutxi batzuk salbu, material gehienak originalak dira, ondorengo baliabide bibliografikoetatik atereak:

**BISQUERRA, R.** (Coord.): *Educación emocional. Programa para primaria*. Barcelona: Praxis. Monográficos de Escuela Española, 2003.

**BOQUÉ, C.** *Tiempo de mediación*. Barcelona: CEAC, 2005.

**CORNELIUS, H.** eta **FAIRE, S.**: *Tú ganas y yo gano. Cómo resolver conflictos creativamente... y disfrutar con las soluciones*. Madrid: Gaia, 1995.

**HUÉ, C.**: *Bienestar docente y pensamiento emocional*. Madrid: Wolters Kluwer, 2008.

**LANTIERI, L.**: *Inteligencia emocional infantil y juvenil. Ejercicios para cultivar la fortaleza emocional con niños y jóvenes*. (Daniel Golemanen sarrera eta gidaturiko ariketak. Ingeleseko eta gaztelaniazko CD bat atxikitzen du gorputza lasaitzeko eta burua sakonki artatzeko ariketekin). Madrid: Aguilar, 2009

**LÓPEZ CABALLERO, A.**: *Cuentos para pensar. Enseñanza de valores en grupo*. Madrid: CCS, 2008.

**PASCUAL, V.** eta **CUADRADO, M.**: *Programa de educación emocional. Actividades para la ESO*. Barcelona: Praxis, 2001.

**JIMÉNEZ, J.** (Itzultzailea) eta **PINKNEY, J.** (Ilustratzailea): *Fábulas de Esopo*. Barcelona: Vicens Vives, 2004.

**SEGURA, M.**: *Ser persona y relacionarse*. Madrid: Narcea, 2002.

**SEGURA, M.**: *Enseñar a convivir no es tan difícil. Para padres y educadores que no saben qué hacer con sus hijos y alumnos*. 4. arg. Bilbo: Desclée de Brouwer, 2005.

**SEGURA, M.** eta **ARCAS, M.**: *Relacionarnos bien*. Madrid: Narcea, 2004.

**SOLER, J.** eta **CONANGLA, M.**: *Ámame para que me pueda ir*. Barcelona: Amat, 2006.

**TORREGO, J. C.**: *Mediación en instituciones educativas*. Madrid: Narcea, 2002.

**TRIANES, M. V.** eta **FERNÁNDEZ, C.**: *Aprender a ser persona y a convivir. Un programa para Secundaria*. Bilbo: Desclée de Brouwer, 2001.



# *Gida Didaktikoa*



## **Ikasleen koaderno-liburua**

Ikasleen laneko oinarritzko materiala koaderno-liburua da. “Liburua” da jarduerak burutzeko behar diren argibide teorikoak biltzen dituelako eta, aldi berean, “koaderno”, bere tokia duelako ariketak egiteko.

Irakasgai honek teoriako parte txiki bat du, praktikak ikasteko ezinbestekoa. Alabaina, balio akademikorik ez duenez, irakasgai hau lotzen ahal da “klasetik kanpora deus ez egitearekin”. Horregatik, teoria klase-orduetan ikasiko da. Horren ordaintan, praktikak ikasgelatik kanpora eginen dira, hain zuzen ere horietako batzuek familiaren baitan edo lagun artean burutzea eskatzen dutelako. Klasean ikasitakoa eguneroko bizitzara aldatzerik ez bada, kurtsoa jarduera anitzek eraginkortasun mugatua izanen dute.

Koadernoak hainbat jarduera eta dinamika aurkezten ditu, programazioan bilduriko osoko hezkuntzaren edukiekin zerikusia dutenak, eta programazio horrexek ematen dio, hain zuzen ere, barne koherentzia jardueren hurrenkerari, nahiz eta ordena horrek arbitrarioa dirudien. Zereginak nahasteak xede bikoitza du: alde batetik metodo eta gaien aniztasunak ikasleei eragiten dien motibazioa; bestetik, ikaskuntza gehienak erdiesteko premiazkoa den curriculum-errepikapena.

## **Liburuaren azala**

Ilustrazioari dagokionez, ikasturtearen aurreneko egunean elkarrizketa bati ekin dakioke, zeinean taldeak eskenaren interpretazio bat egin beharko baitu. Horrela, bitartekotzaren gainean aldez aurreko eza-gupenak aktiba ditzakegu eta, bidenabar, baita par-

taidetzaren, hitzartzeko txanda errespetatzearen eta ikasleen komunikazio estiloaren gaineko lehenbiziko inpresioa eskuratu ere; hortik abiatuz, esku hartzeko lehenbiziko premiak hauteman ditzakegu.

## **Tximeleta**

Irakasleak ikasleei kontatu behar dien testua:

Behin batean bazen, urrutiko herri batean, agure bat oso jakintsua, mendi baten goialdean bizi zena.

Zurezko etxola xume batean munduko toki guztietako jendea hartzen zuen, kontseju edo kontsolagarrri bila heldu zirenak. Inor ez zen esku hutsik joaten haren irakaspenak aditu ondoren. Batzuek erronkak ere ezartzen zizkieten eta inoiz ez zuen bakarrik ere hutsegiten.

Mendiaren magalean herri bat zegoen eta herritarrak pozik eta harro zeuden beren ermitau jakintsuaz. Zortzi urteko haur batek egun batez bere arrebari eskatu zion mendira laguntzeko, ikus zezan nola bentzutzen zuen agurea erronka bat ezarriz batera nahiz bestera erantzunda ere hutsegingo zuena. Tximeleta bat eskuan eramango zuen eta galdetuko zion: “Nola dago esku artean daukadan tximeleta hau: bizirik ala hilik?”. Agureak “hilik” esaten badu, eskuak zabaldu eta hegaka hasiko da. “Bizirik” esaten badu, eskuetan kraskatuko dut.

Bi haurrak igo ziren, bada, mendira eta haietako batek galdetu zion agure jakintsuari: “Agure agurgarria, nola dago esku artean daukadan tximeleta: Bizirik ala hilik?”

Agureak, dudarik egin gabe eta haurren begietako harrokeriari antz emanik, xumeki erantzun zuen: “Eskua artean daukazun tximeleta zuk nahi duzun bezala egonen da.”

## **Testuak**

Koadernoan barna, jarduera desberdinetan hainbat testu tartekatzen dira (batez ere narratiboak) zeinen edukiak beste jarduera batzuetan jorratzen diren gaietako batzuk ilustratzen baititu; beraz, zenbait eduki zabaltzeko eta indartzeko balio dute, adibidez: indarkeria eta telebista (*Haurrak eta telebista*), bizitzan xede batzuk lortzeko aukerak (*Arranokumearen alegia*), adiskidetasuna eta bakardadea (*Androkles eta lehoia*), giza emozioak (*Eromena eta maitasuna*), beldurra sortarazten duen egoera batean nola erreakzionatu (*Erantzun organikoa beldurraren aitzinean*), gatazkaren aitzinean izan daitezkeen hautemate motak (*Agurea, astoa eta haurra*), herabetasuna (*Lagun bat*), kidekoen arteko jazarpena (*Liburuzko kartzela*), ihesa eta eraso bezalako erantzunak iseka eta umiliazioen ondorio diren gatazken aurrean, hala oihanean nola gizartean (*El señor de Greystoke* edo *La cena de los idiotas* filmetan). Beste alde batetik, kurtsoan zehar izenbururik gabeko testu labur batzuk tartekatzen dira, zeinen funtsezko helburua emozioez mintzatzea baita (adibidez beldurra, xantaia emozionala, nabarmendu gabe ibili beharra, nortasun pertsonalaren galera...), bai eta etikaren ikuspuntutik ongia eta gaizkia hautatzeko behar den erantzukizunaz ere.

## **Irakasgaiaren aurkezpena**

Garrantzi handia du ikasleek irakasgaiaren nondik norakoa hasiera-hasieratik ezagutzeak, informazioak motibazioa handitzen duelako eta horren koherentzia eta helburua hautematea errazten duelako.

### **1. Irakasleak ahoz azalduko du irakasgaiaren izena.**

Programazioaren edukiei buruzko aurkezpen hitzalditxo bat emanen da: osotasuneko hezkuntzaren lau zutabeak bizikidetzaren positiborako prestakuntza gisa, gatazkek buru argiz eta era baketsuan konpon



daitezen. Esplikazioaren ondotik, talde osoak go-goeta eginen du: eduki horiek badute garrantzirik institutuan ikasteko?, eta bizitzarako?

## **2. Zer behar dugu?**

Ideia-jasaren bidez prozesu bat zuzenduko dugu, ondorengoa bezalako emaitza batera eramanen duena: begirunea pertsona guztiei, lankidetzara, parte-hartzea, konfiantza ikaskideen artean eta, orobat, ikasleen eta irakaslearen artean, ikasteko jarrera eta borondate ona, lana, interesa eta arreta klasean, ikasgelatik kanpoko praktiken garrantzia. Ikasleek oharrak hartuko dituzte zirriborroan, klasean entzuten denari buruzkoak, gero laburpen bat idazteko.

**3. Lehenengo ariketa, aurrez emandako eskema baten laguntzarekin:** irakasgaiaren aurkezpena, behar direnak guztiak ongi funtziona dezan, ondorioa-itxiera: irakasgaiak ikasleak dituen itxaropenak.

## **Harreman dinamikak: lerroz lerro jartzea**

Harreman dinamikak taldearen kohesioa erdiestea helburu duten jarduerak dira. Hasieran jarduera erraztenak hartuko ditugu, inplikazio pertsonal urrikoak baina bizikidetzara positiboa garatzeko behar den giroa sustatzen dutenak.

Aurreneko jarduera horretan ikasleei lerroz lerro jarri daitezela eskatuko diegu, izenen hurrenkera alfabetikoan. Izenak ozenki esanen dituzte, lehenbizikotik azkenengora, eta bigarren aldiz azkenengotik lehenbizikora. Ikasle kopurua eta haien arteko ezagutza kontuan hartuz, behin eta berriro errepikatuko dituzte zerrendako izenak, harik eta guztiak ikasi artean. Jardueraren helburua lehenbiziko harremanak ezartzea da (ikasleak ikastetxe desberdinetatik etorriak dira), eta harreman horietan ahots guztiak entzutea,

oroimena izan ezik aparteko konpromiso pertsonalik gabe. Gainera, komenigarria da, oso, izen guztiak hasiera-hasieratik ikastea, jarduera gehienetan komunikazioa eta elkarren arteko harremanak beharrezkoak baitira.

Hurrengo klasea modu berean hasiko dugu, baina oraingo honetan hurrenkera jaiotegunaren arabera ezarriko da; alde batetik datu horrek jakinmina sortarazten dielako eta bestetik izenarekin baino denbora gehiagoz beren artean mintzatzera behartzen dituelako. Ilara ongi ordenatua lortu ondoren, ozenki esanen dituzte izena, adina eta jaioteguna.

## **Harreman dinamikak: ikaskidea aurkitu**

Boligrafoa eta koaderno hartu eta klasean barna ibil daitezela eskatzen diegu.

Hasierako harreman dinamikak da, zeinaren bidez ahalginduko baikara behar den kohesioa lortzen, guztiak ongi senti daitezen eta lan egin eta ikasi ahal dezaten. Jarduera horren bidez elkar ezagutu eta harremanak izanen dituzte, hasieran azalekoa baino ez, konpromiso pertsonal handirik gabe. Hori aurreneko urratsa da eta gero izanen dituzte bestelako harreman jarduerak, pertsonen arteko ezagutza sakonagoa bilatzen dutenak, bai eta taldearen kohesio handiagoa ere.

## **Afera Zailen Ministerioa. Arauk, guztientzat berdinak?**

Zentzugabeko albiste bat irakurtzen da, hiritarrak berdintzen dituzten arauen gainekoa, berdintasuna logikoa edo bideragarria ez den alderdietan: Afera Zailen Ministerioa.

Taldeari hortaz zer pentsatzen duen galdetuko diegu, arau horien alde onak eta txarrak ikusita. Egiaz, erabat zentzugabeak direnez 1. eta 2. proposamenak argiro bereizi beharko lituzkete 3. zenbakikotik, hau funtsezko eskubidearen alde baitago.

Gogoeta zuzenduko dugu honako ondorioaren antzeko batera irits daitezen: ez da bidezkoa mundu guztia berdin tratatzea. Haatik, arauetan orokortasuna nagusitu behar da pertsonen oinarritzko eskubideak jokoan daudenean, bestela indibidualizatu beharko liriateke.

Jarduera honek jokabidearen autoerregulazioaren aldeko bideari ekiten dio, autonomia moralaren aldera, haurtzaroko moral-aurreko faseen heteronomia gaindituz.

Klasean filosofia honetan arituko garenez, jarduera honek ondorengoa prestatuko du: arauen premia.

## **Arauen premia**

Bizikidetzara arautu beharri buruzko testua eta arauen zerrenda bat eta arauak ez betetzearen ondorioak irakurriko dira. Elkarrekin irakurri ondotik, talde talde baloratuko da proposamenaren egokitasuna eta arrazoizko aldaketak eskatuko dira. Ekarpenak adostea arrainontziaren bidez burutzen ahal da (ikus *Programazioko Metodologia* atala).

Arauk ez betetzearen ondorioak edo hartuko diren neurriak ontzat hartzen ez den jokabide bati arreta jartzeko urrats mailakatuak dira, edozein motatako zigorra aplikatu aitzin. Horrek erantzukizuna, autonomia eta jardueraren aldeko jarrera sustatzen ditu. Hortaz, arau horien euskarria diziplina positiboko hezkuntza eredu bat da, balioetan oinarritua.

Lan horrek, bestalde, ikasgelako kudeaketa errazten du: ados jartzen bagara hasieratik aritzeko moduz, gatazka ugari aurreikusten dira eta ez da astirik galzten esplikazio eta sermoietan. Kasurik gehienetan, aski da ohar labur batzuk egitea.

Hemendik aitzina ikasle guztiek jakinen dute ikasgelako arauak bizikidetzeta eta lana errazteko jarriak direla, baina ikastetxeko araudia eta zigorrak aplikatu beharko ditugula baldin eta kasuren batean beren xedea erdiesten ez badute. Era horretan, arauak bete nahi ez dituzten ikasleek aukeratu beharko dute edo funtzionatzen duen talde batean sartu, edo ikasgelatik atera eta ikastetxean zigorrak aplikatzen duenarekin konpontzea.

Ondoren proposamena berrikustea proposatuko da, aurrena bakarka, gero taldeka. Hezkuntza eta eraginkortasunaren aldeko lerroan dauden aldaketak baino ez dira onartuko, proposatzen dituzten zigorrak araukoak baitira (beren eskolako esperientzian izan dituztenak). Inklusioaren eta aukeren kontzeptuak azalduko ditugu: “Hemen denek dute tokia. Egon nahi ez duena, soilik, aterako da hemendik”.

Erantzukizunaren ideia hau ilustratzeko (“zerorrek hautatzen duzu” delakoa) tximeletaren kontaera laburra irakurriko da, zeina edukiaren aldetik arrunt poliedrikoa bada ere, kasu honetan bere interpretazioetako bat interesatzen baitzaigu: zerorrek aukeratzen duzu, tximeleta esku artean mazpildu (hilotz bat izanen duzu) ala hegan egiten utzi (haren hegadaren eta koloreen gozamenak izanen duzu). Zuk aukeratzen baduzu, zeroni zara horren erantzule, ez beste inor.

## **Klaseko egunkariari hasiera emanen diogu**

Ikasgelan gatazka sortzeko adina denbora iragan ondoren, gatazka horiek egunkari batean erregistratzea erabakiko da, eta hura irakasleak eramanen du klaserara.

Astero-astero, hurrenkera alfabetikoz, ikasle batek bere izena eta deitura, data eta egunero gertatzen dena idatziko ditu egunkari-koaderno batean. Aste bukaeran egunkari hori irakasleari emanen dio eta irakasleak berak irakurriko du hurrengo asteko lehenbiziko klasean. Klaseko funtzionamenduaren bi atal hautatu beharko dituzte funtsean: pertsonen arteko harremanak eta lan giroa, eta argitu beharko dute zergatik iruditzen zaizkien positiboak edo negatiboak. Egunkariari esker harremanetan ager daitzeko egoera arazotsuez kontu izaten ohitu eta irtenbideak bilatzen ikasiko dute, gatazka buru argiz eta era baketsuan konpontzeko ereduari jarraituz.

Ikasle guztiek behin bederen parte hartu beharko dute. Une horretatik aitzina egunkaria erabil daiteke klasean aztertu beharreko arazoren bat edo kontuan hartzeko moduko gertaera berezi edo harrigarri bat suertatzen denean.

## **Hartzailerik gabeko gutuna eta hura itzultzea**

Jarduera hau aprobetxatuko dugu ikasleek posta bidezko korrespondentziaren formatua (gutuna eta azala) ezagutzen dutela segurtatzeko. Ikasle bakoitzak gutuna bidaliko dio taldeko kide gogaikarriena iruditzen zaionari. Baina ezin dute izena jakinarazi. Haiak bakarrik irakurriko dute. Pertsona horri buru-

ratzen zaien guztia esanen diote: zergatik ez zaien gustatzen, zer kalte egin dien, harekin nola sentitzen diren, zer opa dioten, zer eskatzen...

Gogorarazten diegu gutunen eta azalen formatua.

Idatzi ondotik, azal bana emanen zaie eta hartan ez diote gogorarazi diegun ohiko formatuari jarraituko, aitzitik, idazten duenaren izena eta deitura jarriko dituzte. Azala itxi eta irakasleari emanen diote, eta hark segurtatuko du inork ez duela inoiz ere irakurriko.

Gatazka landu ondoren, hilabetera gutxi gorabehera, itzultzen zaizkie irakur ditzaten eta bakoitzak pentsa dezan gutunaren helburu izan zen pertsona harekiko harremanak nolakoak diren une honetan. Gutun guztiak hautsiko dituzte baina azala gordeko dute, horrek balioko baitu bertan hitz bat idazteko (areagotua, enkistatua, hobetua, konpondua) eta hitz hori idatziz esplikatzeko azal berean. Gero irakurketa txanda bati ekinen diote. Inor mindua gerta ez dadin, inportantea da oroitaraztea jokoaren funtsezko arau bat mintzagai diren pertsonen izena ezkutuan edukitzea dela.

Gatazka bat berrikusteko aukera berri bat da.

## **Harreman dinamika: gauzatxoak eta musika**

Jarduera honek bi fase ditu eta taldekideen arteko harremanetan beste urrats bat da, izan ere lehen partean bikoteka hitz egin behar dute, jorratzen dituzten gaiak huskeriak besterik ez badira ere, horrela komunikazioaren edukian konpromiso pertsonalik gabe jarraitzen du. Lehen zati hau jardueraren bigarren fasean berreskuratuko da.

Zeregin honek xede bikoitza du. Lehenbizi, taldearen baitan giro natural, erraz, eroso sortu nahi da, baina harreman sakonagoak bilatu gabe oraindik. Gainera, bigarren fasearen helburua da ikasleak beren sentimenduetan murgil daitezela eta beren burua imagina dezatela bereziki gustuko ez duten edo are gogait eragiten dieten pertsoneri lagundu beharrean aurkitzea. Momentu txarrean diren ikaskideei laguntzeko eskatzen zaienean, aitzaki gisa diote delako pertsona hori ez dutela ezagutzen, eta are, “ez dutela gogoko”.

### **1ª fasea**

**Talde osoa zutik kokatzen da erdian hutsik utzitako gune batean.**

- Pertsona bakoitzak beste bat bilatzen du zaletasun edo kideasun berekoa: musika mota, janari gogokoena, zodiakoko ikurra, jatzeko manera, irakasgai gustukoena, edo gutxien gustatzen zaiona...
- Guztiek beren kidea aurkitzen dutenean, bi minutuz mintzatuko dira aukeratutako gaiari buruz.
- Beste bi aldiz errepikatzen da, horrela bakoitza hiru kiderekin mintza daiteke gai bati buruz. Gainerakoekin harremanetan jarri beharko dira kideasunen bat bilatzen duten bitartean, beraz, taldeko kide bakoitzak beste guztiekin nolabaiteko kontaktua behar du izan.
- Jarduera bukatu eta borobilean eserita, hiru aukera horietako bakoitzean kideasuna bilatzeko erabili dituzten irizpideez mintza daitezke ozenki. Maiz gertatzen da ezen, amankomuneko zerbait bilatu ordez, kiderik ezagunenarekin zernahitaz hitz egiten aritzea, aurreneko aldian behintzat. Komeni da berak ohartzea horrela egiten dutela eta horren zergatia aztertzea.
- Pertsona bakoitzak taldeko bat, gustuko ez duena, hein batean gogait eragin diona edo, besterik gabe, harreman gutxiago izandakoa, hartuko du

gogoan (ohartarazten zaie ez dutela ozenki behin ere aipatuko).

- Gogoan hartutako pertsonaren gainean galderak egiten zaizkie alde zuzenetik ohartaraziz erantzunak ez ditzatela ozenki eman, helburua gogoeta bakarka eta norbere kabuz egitea baita. Horri “barne bakarriketa” deituko diogu. Galderen artean pentsatzeko astia izanen dute:
  - Zergatik gustatzen zaizu besteak baino gutxiago gogoan hartu duzun pertsona hori?
  - Pertsona horretaz beste zer gehiago ez duzu gustuko?
  - Behar adina ezagutzen duzula uste duzu?
  - Hobeki ezagutuko bazenu, iritziz aldatuko zinatekeela uste duzu?
  - Arazoren bat izanen balu, lagunduko zenioke baldin laguntzen bazeneki?

### **2ª fasea**

**Abestia.**

- Edozein abesti, adin horretako neska-mutilei emozioak sortaraz diezazkiekeena, baliagarri izan daiteke.
- Musika hunkigarria entzuten dutela iragartzen zaie eta entzuten dauden bitartean, abestiaren erdi aldera, bete beharko dituzten agindu batzuk ere adieraziko zaizkie. Sarrera motibatzaile bat egin dezakegu: zergatik hautatu dugun, nor izan dugun gogoan, anekdota edo xehetasun bitxiak abestiaren edo egilearen gainean...
- Entzuten ari direino momentu bat, txarra nahiz ona, baina emozio handiz bizi izandakoa, gogorra ekar dezatela eskatzen zaie eta abestia bukatu arte hartan pentsatuz egon daitezela. Abestiaren erdi aldera jardueraren aurreko fasean hautaturiko pertsona hartaz pentsa dezatela eskatuko diegu eta balora dezatela ea lehen bezala ikusten duten.
- Ez da premiazkoa ados jartzea, berehala irakurriko direlako 5. ariketako testuaren ondorioak; baina norbaitek jardueran izan duen esperientziak

hitz egin nahi badu, egin dezake, hunkigarria eta interesgarria izaten baita.

### **Harreman dinamika: nolakotasun positiboan bila**

Gorazarrearen balioa aitortzea da helburu, eta losintxa edo “koipe ematetik” bereiztea. Hortaz hitz egiten da bukaerako ados jartzean.

Gure kultura gorazarre oren kontrakoa izan da eta kritika egitearen nahiz isilpean edukitzearen aldekoa. Jardueran frogatuko dute zenbat kostatzen den ikaskideak eta are adiskideak ere laudatzea.

Mesederik handiena autoestimua apaleneko ikasleei egiten zaie, baina arreta berezia jarri behar da “honek ez du deus onik” bezalako komentariorik egin ez dadin, kontrako eraginik sortu nahi ez bada. Horixe izanen da, hain juxtu, jardueraren oinarritzko arau bat.

### **Harreman dinamika: ene altxorra aurkeztuko dut**

Jarduera honen helburua da taldean eta bizitzan guztiok geure tokia badaukagula erakustea. Neska-mutilek estimatzen dituzte nor eta nolakoak diren jakinarazten dieten laguntza guztiak, horregatik irekirik daude familian, taldean eta munduan nor bere lekua aurkitzen laguntzen dien guztiari. Hurrengo jarduerak norberaren zerbait besteekin partekatzen duten ikasle guztien autoestimua indartzea du helburu. Estereotipoak hausten ere dira, nola edo hala etiketatuta edo zokoraturiko ikasleen alde positiboak ezagutzeko gero.

Neska edo mutil bakoitzari eskatzen diogu klasera bere “altxorretako bat” eraman dezala: gauzaren bat,

argazki bat, musika edo libururen bat. Bakoitza bere altxorraz mintzatuko da, aldez aurreko gidoi baten laguntzaz eta gainerakoek galderak, esaten dena entzun ahala idatziko dituztenak, eginen dizkiote.

Azalpenak hurrenkera alfabetikoz eginen dira, hiru edo lau interbentzio klaseko egun bakoitzeko.

Irakasleak hitzartzeen eta entzutearen kalitateaz oharrak idatziko ditu.

## Lan kooperatiboa

Mota horretako lana bizikidetzaren eremuan kokatzen da pertsonen arteko harremana sustatzen duelako ikaskuntzaren arloan eta printzipio eta balore zenbait oinarri dituelako, hala nola elkartasuna, elkarrekiko laguntza, inklusioa, aniztasuna kontuan izatea, aukera berdintasuna, erantzukizuna, ahalegina eta errespetua.

Irakasleak talde bakoitzaren prestaketa finkatuko du ahalik eta heterogeneotasun handienaren irizpidea erabiliz: neskak eta mutilak, arretatsuak eta arreta jartzen ez dutenak, motibatuak eta motibazio gabeak, arduratsuak eta erantzukizunak beren gain nekez hartzen dituzten ikaskideak.

Printzipio eta balio horiek beren gain har ditzaten, taldea prestatzeko bi dinamika hauek izanen ditugu: *Elkartu gaitezen eta Itsu-aurrekoa*.

**“Elkartu gaitezen” izenburuko dinamikak** ondorioak ateratzea du helburu, zergatik dugun berez elkartzeko joera, kidetasunen arabera, bai eta lan egiteko ere. Horregatik, erraz baztertzen ditugu besteek behin ere hautatzen ez dituzten ikaskide batzuk. Azken ideia izanen litzateke: lan egiteko prest

egon beharko ginateke klaseko nornahirekin elkartzeko eta lan horretan batak besteari laguntzeko.

Ikasleak denak inguruan jarriko dira bizkarra emanez elkarri (gutxi batzuk izan ezik, hain zuzen behatzaile lanean ariko direnak). Begiak itxiko dituzte eta kopetan gomet bana jarriko zaie; batzuei gorria; beste batzuei, urdina, eta beste batzuei horia. Taldeko kide bati ez zaio gometik jarriko. Eskatuko diegu, hitz egin gabe bira daitezela biribilgunearen barne aldera, batak besteari begiratu eta taldeak egin ditzatela (irizpiderik eman gabe). Arruntean gometaren koloreari jarraikiz taldekatzen dira, baina ez beti. Jarduera bukatuz, behatzaileak gertatu denari buruz mintzatuko dira eta, gero, parte-hartzaileek beren ikuspuntua azalduko dute. Interesgarria da taldeak zer jarrera hartzen duen gomet gabeko ikaskideari buruz. Hori ere azaldu beharko dute. Ikaskide horri ere galdetuko diogu nola sentitu den bera.

**“Itsu-aurrekoa” izenburuko dinamikak** ikaskideen artean konfiantza sortzea du helburu: zolan oztopoak hedatuko dira (mahaiak nahas-mahas, aulkiak, motxilak...) eta ikasleak bikoteka ikasgelako pareta baten kontra jarriko. Bikotekide batek begiak itxi eta itsuarena eginen du eta besteak itsu-aurrekoarena. Aldamenean jarri eta aginduak emanen dizkio kontrako paretara iritsi dadin. Ariketa errepikatuko da rolak aldatuz.

Bigarren fasean aurrekoan egindakoa eskatzen da, baina oraingo honetan, itsu-mutilak itsua besotik helduta eramanen du.

Aterako dugun ondorioa izanen da laguntza berotasunez eta hurbiltasunez ematen bada hagitzez eraginkorragoa dela urruntasunez eta irakasleak horrela eskatzen duelako bakarrik ematen dena baino. Era

berean, ikusiko dugu lana gustura egiteko behar-beharrezkoa dela ikaskideenganako konfiantza gatazka.

Ondoren, une horretatik hasita lan kooperatiboko jarduerak zuzenduko dituzten arauak irakurriko dira.

Horietako lehenbizikoan, uharte jendegabea izenean, ados jarriko talde bakoitzeko kideek alegiazko bidaia batean eramanen litzuzkeen hiru gauza hautatuko dituzte. Bidaia erdietsiko du aurrez ezarritako epean adostasuna lortu eta bere aukeraren arrazoiak adierazteko gai den taldeak. Azkenean talde guztiek hautaturiko gauzak bai eta baztertutakoak ere irakurriko ditugu, horrela honen antzeko ondorio batera iritsiko ginateke: guretzat garrantzi handikoa eta apalagokoa zer den erabakitzean, ongizatea (zenbaitek “zoriona” deitzen duten hori) dakarkiguna bilatzera jotzen dugu. Bilaketa horretan oinarritzko beharrak betetzeko eta emozio positiboak eta onuragarriak bilatzeko joera izan ohi dugu.

## Gatazka

1. Barnerantz nahiz kanporantz markatzen duten geziak aitzinean, taldeari eskatzen diogu, eskuak altxata, adieraz dezala bi aukera horietatik zein den gatazka egoera hobekien islatzen duena. Hautaketaren arrazoiak azalduko dira. Gehienek aurrez aurre dauden geziak hautatzen dituzte, ez baitute ulertzen gatazka desadostasun bat besterik ez dela, ez duela zertan aurkapen bat izan behar eta, aurkapena baldin bada ere, izan ohi dela gatazka nahasten dugulako guk ematen diogun erantzun erasokorrenekin. Kanpora aldera markatzen duten geziak hautatzen dutenek gatazkaren aurrean inibizioa hautatzen dute, eta hori ere ez da irtenbide egokia.

2. Gatazkei buruzko testua irakurriko dugu eta ar-belean gatazka egoerak idatziko ditugu ideia-jasa bezala. Ondotik, eskatuko diegu pentsa dezatela egoera horietatik zeinetan nahasten ditugun gatazka eta hari ematen zaion erantzuna.

3. Gatazka ezagun bat aztertuko da, gatazka aztertzeke eredu-taula aplikatuz, zeina erabiliko baita gatazka egoera bat sortzen den aldiro. Horrela, ikasleak gai izanen dira horren aplikazioa automatizatzeko eta egiazko bizitzara aldatzeko.

### **Gatazkek konpontzeko estiloak**

1. Gatazkei ekiteko moduak lantze aldera, bizipenezko dinamika batetik abiatuko gara, ikasleek ikusi ahal izan dezaten gatazka egoerak ez dutela nahitaez ezkorrak izan behar: biribilean jarririk, zutik, eskatzen zaie izenak esan ahala nork bere kokagunea beste batenarekin truka dezala. Alabaina, bi pertsona horien artean irudipenezko korridore bat dago, beren sorbalden neurri berekoa. Beren xedea erdiesteko bururatzen zaiena egin beharko dute, hitzik esan gabe ordea; komunikazioa keinu bidezkoa baizik ez da izanen. Gauza bera eskatuko zaie bikote batzuei.

Ariketa berriro eginen da baina oraingo honetan alegiazko korridorearen erdian irakaslea paratuko da, horrela bi ikaskideei pasabidea eragotziz.

Jarduera bukaturik, ikusitakoaz mintzatuko gara, arruntean honelakoa izan ohi dena: batek beste bati eskatzen dio bizkarrez bizkar gurutza dadila; batek bestea maneiatzen du fisikoki, batzuetan bultzaka ere bai; batek besteari eskatzen dio zangoak ireki ditzala edo makurtu dadila azpitik

pasatzeko edo gainetik jauzi egiteko; pertsona batek bestea kanporatzen du...

Irakaslea oztopo gisa jartzen denean, ez dio inori bera maneia dezaten utziko; aldenduko da baina norbaitek adeitsuki eskatzen badio. Gero adieraziko du: ni zuretzat oztopo banaiz, esaidazu adeitasunez albo batera egin dezadala, eta halaxe eginen dut, kalterik ez badakarkit. Haatik, ez dut gustuko inork ni maneiatzea, bultzatzea, txotxongiloa banintz bezala erabiltzea, ni behartzea, indarrez alboratzea, gogoak ematen diolako agintzea..., ni aintzat hartu gabe.

2. Gandhik irribarrearen gainean egin poema irakurri ondotik, adiskidea ez den bati irribarre egin diezaiotela eskatzen zaie eta horren ondorioak balo- ra ditzatela.

3. Bukatzeko, astoen marrazkia interpreta dezatela eskatuko diegu, elkarlanaren balioaz ohar daitezen, hots, bi-biek irabazten dutela, eta horretaz ohartuko dira lasaitasunez gogoeta egitera jartzen direnean. Orrialdearen bukaerako gida-esaldiak ilustratzen du ideia hori.

Estiloaren hautaketan duten erantzukizuna sustatzearen, tximeletaren alegiaren mezua oroitarazten ahal zaie: “zerorrek erabakiko duzu tximeleta eskuan mazpildu ala hegan egiten utzi, jakinik bigarrena erabakiz gero, tximeletaren koloreak eta hegaldia dastatuko dituzula; lehenbizikoa hautatuta hilotza besterik ez duzu izanen eskuan”.

### **Buruz ikasteko esaldiak**

Koadernoan ideia interesgarriak, bitxiak, motibatzaileak edo, besterik gabe, oso ongi taxutuak adieraz-

ten dituzten esaldiak tartekatzen dira. Agertu ahala, horiei buruz mintzatuko gara. Taldeak jakinen du, ikasturte bukaeran, pertsona bakoitzari esaldi bana hautatzeko eta horren arrazoiak emateko eskatuko diogula.

Esaldiei baliagarritasuna emateko ideiak iradoki ditzakete: margotzea, ebakitzea eta hormairudi bat egitea logelarako, ikasgelarako...; plastifikatzea orrialde-markatzaileak egiteko...; opari gisa ematea...

### **Ikaskide bakartuak**

Alde batetik, besteek baztertutako ikasle baten soslaia egin beharko litzateke, ezagutu dezaten eta egoera horretaz ohar daitezen; beste alde batetik, ikaskide bakartu batengana modu naturalean hurbiltzeko formula zerrenda bat aurkeztuko dugu.

1. Aurrena koadernoan bakarka eta hurrena taldeka, bakarturik dagoen ikaskide baten ezaugarriak idatziko dituzte.

2. Arrainontzia eratuko da. Bozeramaileek ikaskide bakartuaren soslaia azalduko dute. Ados jarri ezean, beren artean eztabaidatuko dute. Gainerakoek adi egonen dira, une oro isilik eta, arrainontzian esaten denari zerbait gehitu nahi badiote, bozeramaileari pasarazitako ohar baten bitartez eginen dute. Ondorioak ideia baterantz bideratuko ditugu, zeinaren arabera arruntean zernahi arrazoiz guretzat diferentiek diren pertsonak erdeinatzen baititugu, “samaldak” ematen digun segurtasunerako arriskugarri edo mehatsutzat jotzen ditugulako, pertsona horiek inolako kalterik egiten ez badigute ere.

3. Ikaskide bati buruz idatziriko hurbiltze adierazpenen zerrenda koadernoan irakurri ondotik, eskat-



zen dugu, ezen taldean beti ere, adierazpen horiek ikaskideek darabilten mintzamoldean egoki ditzatela edo beste hautabide bat idatz dezatela. Ados jarririk, koadernoan adierazpenen bilduma osatuko dute eta hortaz baliatzen ahal dira ikaskide bakartu batengana hurbildu nahi dutenean.

## Entzute eraginkorra

Aurreko jardueran entzutea proposatzen zen arazoren bat duenari laguntzeko modu bat delakoan, baina abian jartzeko zenbait teknika ikasi beharra dago eta horretarako denbora eta arreta berezia ezinbestekoak dira.

**1.** Lehenengo jarduera bizipenezko dinamika bat izanen da: “entzute-gurpila”. Asmoa da ikasleek bizi dezatela horren zabaldua dagoen egitatea, hots, norbait gure esanetara adi egoteko premian gaudenean, norbait horrek uko egitea edo gaizki aditzea. Era horretan, gure asmoa da ikasleek, ahal den neurrian, komunikazioaren oztopoak saihestu ditzatela entzuten ari direnean.

Jarduerak mekanika hau du: irakasleak koadernoko “Komunikazioaren oztopoak” izeneko orriaren fotokopia aterako du eta esaldi bakoitza ebakiko. Klasea bi taldetan banatuko du. Horietako bat ikasgelan geldituko da eta mahaiak pareten kontra jarriko ditu, berriki gertaturiko gatazka bat, beste ikaskideei kontatzen ahal zaiena, gogorazten duen bitartean. Delako gatazka anekdotikoa izan daiteke edo, are asmatua ere.

Bien bitartean, irakaslea korridorera aterako da klaseko beste erdiarekin, ikasleei esaldi-zerrendatxo bana eman eta adieraziko die agindutako rola nola interpretatu behar duten. Gelara itzultzean eskatuko diegu bi biribilgune kontzentrikotan jarri

daitezela; barnekoan gatazka kontatzaileak kokatuko dira eta kanpokoan entzuleak. Horrela, aurrez aurre jarriko dira, bikoteka, bata besteari begira. Esku-zartako bat entzuten duten bakoitzean kanpoko biribilgunekoek postu bat aitzinera egiten dute erlojuaren orratzen aldera. Eta horrela, harik eta guztiek beste guztiei entzun arte.

Bukatzean, entzundako ikaskideen esperientziak bilduko ditugu (ea beti izugarri ezkorrak izan ohi dira, bai eta zirraragarriak ere, ikaskuntza errazten dutenak). Azkenik, komunikazioaren oztopo guztiak eta horien ondorioak azaltzen dituen koadernoaren orrialdea irakurriko dugu.

**2.** Entzute eraginkorraren ezaugarriei, helburuari eta faseei buruzko argibideen testua irakurriko da.

**3.** Entzutearen lehenbiziko ariketa egin aitzin, eta ikasleek galdera irekiak egitearen garrantzia ulertuz, “pertsonaia asmatu” izeneko jokoa txertatuko dugu. Nola jokatu koadernoan berean adierazten da.

**4.** Egoera simulatu bat, irakasleak kontatuko duena, entzuten dute taldekide guztiek, elkarri lagunduz, koadernoaren gida lagun dutela. Entzuten ari den taldea pertsona batek antolatuko du eta premiarik izanez gero, moderatzaile gisa ere arituko da.

**Egoera gatazkatsua:** *ikasle bati “gutxiegi” nota jarri nion, biziki haserretu zitzaidan eta egun batez arbelean nire kontrako irain larri bat aurkitu nuen, hark berak idatzia, ene ustez.*

**5.** Hauxe da ikasle guztiek, bikoteka, ariketa oso bat egiteko une egokia. Aurrena, horietako batek bere ikaskideari entzuten dio eta gero berari entzuten zaio, ikuspegi biek aberasten baitute ariketa.

Bakoitzak kontatzen duen arazoa egiazkoa nahiz asmatua izan daiteke.

Batak besteari eragozpenik egin ez diezaion bikoteak elkarrengandik urrun samar jarririk, pertsona batek beste bati arazoren bat kontatuko dio, eta entzuleak galdera-gida baten laguntzaz entzute eraginkorra egiten du. Ariketan diharduten bitartean, irakasleak faseetatik desbideratu edo “trabatu” diren bikoteei lagunduko die. Jarduera errepikatuko da, baina rolak trukaturik.

Bikoteen esperientziaz mintzatuko gara, baldin eta hala egin nahi badute: zein izan dira zailtasunik handienak?, nola ikusi dute beren burua rol batean nahiz bestean?, faseak ongi bete dira?, irtenbideak aurkitu dira?

Hondarrean, faseak berrikusiko ditugu guztion artean:

- Zer gertatu zen? ▶ Gertaerak.
- Nola sentitu ziren? ▶ Sentimenak.
- Zer behar da? ▶ Beharrak.
- Zer egin daiteke? ▶ Irtenbideak bilatzea eta aztertzea (zer agituko litzateke, baldin...?).

**6.** Bihotz transplantea. Ikasleei jakinaraziko diegu parafrase teknikak eta entzute eraginkorra islatzearenak landuko ditugula, horiek nekezago beretzen baitituzte.

Zazpi talde edo bikote eratuko dira eta argudioak idatziko dituzte horietako bati bihotz transplantea egitearen alde. Ondoren arrainontzian eztabaidatuko dute, baina hitz egin baino lehen parte hartzaile orok aurrez mintzatu denaren ideiak eta sentimenak parafraseatu eta islatu behar ditu (arrainontzian eginiko lehen hitzartzea salbu, bistan denez).

Arauk bete ezean jokia geldiarazi eta arauok bete ditzatela eskatuko zaie. Behatzaileek oharrak hartuko dituzte biribilguneko pertsonak esaten dutenaren gainean.

Jokia hasi eta hamabost minutura eten egingen da, parte-hartzaileak ados jarri ez badira ere. Irakasleak zazpi kideak mintzarazten ahal ditu, zeren gerta baitaiteke baten bati gehiago kostatzea.

Jarduera ebaluatzeko orduan, behatzaileak eta parte-hartzaileak mintzatuko dira.

### **Álex Rovira eta Fernando Triásen La buena suerte izeneko liburuaren irakurketa (Bartzelona: Urano, 2004)**

Liburuaren irakurketak bide ematen du gatazka bat konpontzeko izan daitezkeen moduak ikusteko: zaldun batzuek lau orriko hirusta aurkitzeko duten zailtasuna. Enpatia, kortesia, besteenganako konfiantza eta, batez ere, entzutea izanen dira arrakastaren gakoak. Eta hori guztia fantasiako fikzio baten bitartez (adin horietan hainbeste gustatzen baitaie), basoan bizi diren irudipenezko izakiekin.

Interesa irakasgaiaren gaietan ezarriko da, koadernoan proposaturiko lanaren bidez, eta gero irakasleari emanen dizkiote.

Horren irakurketa lehenengo hiru hilekorako aurreikusitua da. Klasean irakur daiteke oso-osorik (horretarako astebete batzuk beharko litateke), edo bestela etxean (eragozpen bat du horrek, ezin ditzakegula etenaldiak egin gogoeta egiteko eta are ulertzeko ere). Hirugarren aukera da egokiena, agi danean, programazioaren eritmoarekin ongi badator, behint-

zat: zati bat Eguberriko oporrak baino lehen klasean irakurri, oporretan lan horretan jarraitu, eta urtarri-lean azken kapitulua elkarrekin irakurri.

### **Dilema moralak**

Dilema morala debate-ariketa bat da, oso egituratua. Koadernoan zehar dilema egoera desberdinak tartekatzen dira. Taldea lan prozeduraz jabetzen denean, xede berberak baina denbora gutxiagoan lantzeko asmoz, esaldi bukatu gabeak proposatzen dira, era honetakoak: “taxi batean dirua aurkitzen badut...”, “adiskide bat lapurretan diharduela ikusten badut...”, “errepidean istripu bat ikusten badut...”.

Helburua da ikasleak gatazka egoeretan jartzea, zeinetan ezagutzak eta balio moralak elkar jotzen duten. Horien aitzinean zer egin erabaki behar da. Ez da irizpide teoriko bat (zer egin beharko litzatekeen), praktikoa baizik (zer egingen zenuke zeuk egiaz). Ikasleek beren kidekoekin erabakiak kontrastatzeak garapen morala suspertzen du pertsona heldu baten edozein solasaldik baino askozaz gehiago. Utzi behar diegu askatasun osoz eztabaida dezaten, azkenean geure ikuspuntua azaltzeko ahalmena izanen badugu ere.

Lehenengo dilema ahoz aurkeztuko da. Oharrazten zaie ezen, taldeka eztabaidatu ondoren magiazko mikrofonoaren bidez burutuko dutela debata (ikus Programazioko Metodologia atala).

Honako hau da aitoren istorioa:

“Hamabost urteko neska bat naiz. Gurasoak asko maite ditut, zuek bezala, baina maiteago dut aitona, gurekin bizi dena.

Hainbeste maite dut txiki-txikitatik nirekin denbora gehien emateaz gainera maitakorrena izan delako. Joan den hilean aitona eritxera eraman zuten bihotzekoak jota. Gutxiatik ez zen hil. Orain etxean dugu berri eta neronek zaintzen dut eta nerau naiz berarekin denbora gehien pasatzen duena. Baina bada arazo bat: medikuak esan du hil egingen dela erretzen badu edo zurrut egiten badu, nahiz gutxi izan. Kontua da lehen tabakoak eta ardoak bizimodua alaitzen ziotela, ez zuela beste ilusiorik (eta nirekin egotea, noski). Orain dio “gutizia” horiek gabe ez duela bizi nahi. Zaharra izanik, tristea dela gelditzen zaizkion plazer apur horiei uko egitea. Etengabe ari zait eskan, zigarro bat edo basoerdi bat ardo, eta zer egin ez dakidala nago.”

### **Eztabaidak izan lezakeen beste egitura bat**

1. Taldeari dilema morala aurkeztu zaio. Pertsona bakoitzak bere jarrera behar du azaldu (“ez”, “bai” edo “zalantzan nago” soilik). Erantzuna eskua jasoz emanen da eta ahaleginak egin behar dira zalantza kopurua ahalik eta murrizten izan dadin, baietzaren ala ezetzaren aldera erabakiaraziz.
2. Berdin pentsatzen dutenak talde berean elkartuko dira. Ez da nahitaezkoa kopuruaren aldetik oreka izatea. Jarrera baten aldeko ikasleak gehiegi badira, talde batzuk eratuko dira. Adostasunik izanez gero eta kontraktorik ezean, irakasleak erabakia korapilatuko duten elementu berriak sartuko ditu, harik eta norbaitek bere iritzia alda dezan arte.
3. Minutu batzuetan beren jarreraren zergatiak idatziko dituzte.

4. Talde bakoitzak bere arrazoiak irakurriko ditu. Guztiek bukatzen dutenean, irakasleak hitza hartzeko txanda irekiko du, bera izanen da moderatzailea eta azkenean bere iritzia ere eman dezake, baina bere balioak inori txertatzen saiatu gabe.

### Harreman dinamika: elkarrizketa

Xedea da elkarren ezagupenean sakontzea, lehenbiziko harreman dinamiken azalekotasunetik aitzina eginez.

Elkarrizketaz, kazetaritza genero bat den aldetik, argibide xume bat aurkeztuko da, genero hori gure beharretara egokitze aldera: hau da, elkarrizketak bikoteka egitera, ikaskideen arteko ezagupena handitzeko eta harreman positiboak sustatzeko.

Galdera batzuk balio dute ikastetxean bizikidetzan nola baloratzen duten hein batean bederen jakiteko, eta horrek ondorengo debate baterako bide eman dezake.

### Emozioak

Ikasleei ulertaraziko diegu emozioak kontrolatzea ez dela erreprimitzea, esan nahi da ez sentitzera edo "irenstera" behartzea. Erreprimitzea askatasunaren kontrakoa da, alabaina emozioak kudeatzeak, erregulatzeak edo kontrolatzeak libre egiten gaituzte, geure borondatearen arabera aritzen garelako, hau da, ez garelako gure emoziozko bulkadaren gatibu bilakatzen.

Emozioak lantzeko modu bat da ikasleei beren burua lasaitzen irakastea. Lasaitzen ikastea berez

da xede didaktiko bat: emozioak identifikatzeko eta erregulatzeko bide emanen duen egoera fisikoa eta mentala lortzea. Ikaskuntza horretatik, gainera, beste onura bat erdiets daiteke: taldea baretzea sobera asaldaturik, nekaturik edo sakabanaturik dagoenean. Teknika ugari dago (batzuk grabatu ere grabatzen ahal dira: ikus Lantieri, programazioan bildutako bibliografian), baina errazena da arnasketan, tentsio-distentsioan eta imaginazioan oinarritzen dena.

Hasiera begiak itxiz ematen diote, bizkarra aulkian ongi egokituz, arnasa hartuz eta besoak askatuz gorputzean behera. Nork bere arnasari erreparatzen dio, harik eta airea bularrean eta sabelean sartzea lortu arte. Bi eskuekin alde horiek ukituko dituzte arnasa bietan orekatzen dela frogatze aldera. Zuzenduriko ibilbidea eginen dute (eskuak eta besoak, lepoa, bizkarra, zangoak eta oinak) izendatzen den zatia hiru aldiz tentsioan jarriz eta ondoren lasaituz. Kontzentrazio maila behar adinakoa dutenean, egoeraren bat irudika dezatela eskatuko zaie. Adibidez, elurrezko panpinak direla, goitik behera urtzen ari direnak, edo hegalek ikaragarriak izanik, hiriko etxe guztien gainetik hegan egiten dutela teilatu batetik jauzi eginez, edo hondartzan emeki-emeki belzten ari direla itsasoaren murmurioa entzun eta usaintzen duten bitartean, eta azalean eguzkia eta brisa sumatzen dituztela.

Lehenbiziko jarduera horiekin emanen diogu hasiera ikasturtean zehar jarraituko edo indartuko den lanari.

1. Emozioen kontrolari buruzko informazioaren irakurketa gidatua.
2. Emozio negatiboak (horiek kudeatzen ikastea komeni da) eta positiboak (horrelakoak sustatzen ikasi behar da) kontrolatzeko desberdintasunak. Bigarren ariketan emozioak identifikatzeko lana

planteatzen da, bai eta horietara lerratzeak ekar ditzakeen ondorioak ere. Azken ondorio gisa esan behar, positibotzat jotzen diren emozioak ere kaltegarri izan dakizkigukeela adimen arrazionalaren kontrolik ez badago.

3. Sentimen eta emozioen domino-jokoa.

Hiztegia ezagutzeak emozioak identifikatzen laguntzen du. Joko honek oinarritzko alfabetatze emozionala suposatzen du eta, aldi berean, lan kooperatibo bat, zeinean ikasleek elkarlanean aritzea beste erremediorik ez duten. Irakasleak banatuko dituen domino-fitxetan (Manuel Seguraren *Relacionarnos bien* izeneko liburutik fotokopia daitezke) erditik alde batean egoera batzuk deskribatzen dira, norberak izan ditzakeenak, eta beste aldean adjektibo bat, beste edozein fitxatan ageri den egoerari dagokiona. Jokoa fitxak elkarrekin lotzean datza, domino-jokoa osatu arte. Adjektiboak errepikatzen direnez, taldeak adostu beharko du eragozpen hori nola gainditu.

Horrela zehaztasuna hobetzen da eremu lexikoan, sentimenen eta emozioen arloan, zaila baita bestela horiek menderatzea.

Azkenean, behatzaile batek edo bik esanen dute nola antolatu den talde bakoitza eta zernolako lotura dagoen antolatze moduaren eta erdietsitako arrakasta edo porrotaren artean.

### Enigmak

Enigmak ezagutzarako probetxugarriak dira hobetzen baitituzte pentsaera alternatiboa, sormena eta originaltasuna pentsatzerakoan. Horrek berekin dakar gaitasuna garatu beharra gatazka bati ahalik eta irtenbide gehien bilatzeko, horien artean hobereena hautatu ahal dezagun. Erronka sortarazten dutenez, ikasleen parte hartzea eta motibazioa bultzat-



zen dute, gainera. Azkenik, kontuan hartu behar da talde laneko beste ariketa bat dela.

Honako hau da lan prozedura:

1. Enigma ulertzeko moduko irakurketa.
2. Enigmak planteatzen duen egoeraren memorizazioa, gero beste pertsona batzuei erronka bota ahal izateko.
3. Ikasleek, taldeka antolaturik, izan daitezkeen irtenbideak irudikatzen dituzte. Garaile aterako da, liskarrik eta oihurik gabe, enigma beste taldeak baino lehenago asmatzen duena. Prozeduraren baitan aldaketaren bat sar daiteke, adibidez, erantzuna bakarka eta idatziz emanaz, batez ere enigma oso simplea denean, talde kopurutsua bada edo astirik ez dagoenean.
4. Irtenbide bakoitzaren logika baloratuko da eta onena kopiatuko dute. Hemen ageri dena ere diktatuko zaie.

**Ibaia igartzeko arazoa:** aurrena ahuntza pasatu behar du eta beste aldean utzi. Ondoren, otsoaren bila itzuli eta hura ere ibaiatz bestaldean utziko du, baina zuhaixkaren bila itzultzen denean ahuntza berekin ekarriko du otsoak hil ez dezan. Ahuntza hasierako ibaiertzean utziko du eta zuhaixka eramanen, zeina beste bazterean utziko baitu otso adiskidearen aldamenean. Ez da gelditzen besterik ahuntzaren bila berriro itzultzea baizik.

**Ur botila:** kortxo botila barnera sakatuz.

**Txori dendan:** loroak entzuten duen oro errepika dezake, baina gorra izaki ez du horrela egiten.

**Ostalaritzako zerbitzaria:** eriak ikartzeko moduko zotina du eta zerbitzariak kendu nahi dio sus-to bat emanaz .

**Arazoak patatekin:** purea egitean.

**Aterpean:** pospoloa.

**Bartolo:** espero zuen semea da.

**Pegarra:** zuloz bete.

## **Asertibotasuna**

Ikasturteko une honetan ikasleek badakite gatazka baten aitzinean hainbat erataria jardun dezakegula; gehienbat, oldarkor jarriz, saiheska ibiliz edo asertibotasunez. Haatik, aurreikusi beharko dugu zein liratekeen erantzun bakoitzarekiko gure jokabidearen ondorioak. Hori dela eta, egoera desberdinetatik abiatuz, eskatuko dugu hiru kideko taldeetan ikasle bakoitzak defenda dezala hiru erantzun posibleetatik bat, horren alde onak eta txarrak azalduz. Bukatzeko, bozketa eginen dugu bakoitzak, antzeko egoera batean suertatuz gero, benetan zer eginen lukeen jakiteko.

Ondorioak ateratzen ahaleginduko gara, erantzun pasiboak, oldarkorrak ala asertiboak nora eramaten duten antzemateko. Ondorioen ideia nagusia izanen da erantzun asertiboa dela korapilatsuena, emozioen kontrola eta hizkuntza prestaketa handiagoa eskatzen duelako, baina bera da eraginkorra eta zuzenena.

## **Haserrearen kudeaketa**

Atal honetako jardueren helburua da horren kontrolagaitza den (batik bat nerabeen artean) emozio horren gainean informatzea. Horretarako, hastapeneko informaziotik abiatuko gara, eta hori ulertzen lagundu beharko diegu. Informazioaren ondorengo jarduerak bide ematen diete ikasleei haserrea sortarazten duten egoera konkretuetan jartzeko, emozio horren sorburuez eta horretara guztiz lerratzeak ekartzen ahal dizkigun ondorioez gogoeta egin dezaten.

*Erantzun organikoa izuaren aitzinean* izeneko testuari dagokionez, laguntza beharrezkoa da ulergarri izan dadin. Eskatzen den konklusioa da haserrea sorta-

razten digun egoera batean, defentsarako edo erasorako erantzun organikoa murriztu edo desagertu arte itxarotea dagokigula.

## **Zineforuma: Greystokeko jauna**

Filme hau Tarzanen mitoaren bertsiorik onenetako bat da. Horren bidez, besteak beste, ikus daiteke oihaneko biziraupenaren legea: animaliek nola ihes egitera edo erasotzera jotzen duten bizirik irauteko. Hori gizarte zibilizatuari kontrajartzen zaio, zeinean ihes egiten edo erasotzen baita emozioei edo irizpide moralari erantzunez.

Filmea oso luzea denez gero, klasean ikus daiteke aitonaren heriotza eta bilobaren erreakzioa kontatzen den eszenara arte. Gainerakoa kontatu daiteke, baina ikasleei azken zatia asma dezatela eskatzen zaien jarduera burutu ondoren.

## **Nola ikusten duzu zuk? Subjektibotasuna gatazka hautematean**

Garrantzi handia du ikasleei objektibotasun eta subjektibotasun kontzeptuak ulertaraztea, jarduera honen eskaintzen dituen adibideak aprobetxatuz.

Galdera sail bat planteatzen dugu, bakarka erantzutekoak (tartean sartzen ahal ditugu taldean gertatzen diren gatazka egoerak islatzen duten batzuk, proposatzen diren ordez). Gero ikasleei eskatuko diegu taldeak osa ditzatela, erantzunak konpara ditzatela eta desadostasunik handiena sortarazten duenaz mintza daitezela. Bukatuko dugu esanaz egoera jakin bat bizitzeko modu desberdina duela batbederak eta pertsonen errespetoa zor zaiela beti, guk ez bezala pentsatu edo sentitu arren.

Jarduerak pentsaera sekuentziala eta ikuspegiakoa (enpatiazkoa) garatzen laguntzen du.

Gatazkak hautematean subjektibotasunak duen garrantziaren ilustrazio gisa, Ocamporen pinturen PowerPoint erako aurkezpena erabil daiteke (egokienak hiru lehen irudiak dira. Bere webgunean daude ikusgai: <http://www.octaviocampo.com.mx/galeria.htm>) edo bestela ikusmen-pertzepzioaren irudi klasikoak.

### **Akordioaren diagonalak**

Klaseko mapa bat eginen dugu, neskek eta mutilak gatazkak hautemateko duten moduari buruzkoa. Has gaitezke mundu osoko gatazkak planteatuz, gero eskolakoak eta agian norberarenak, koadernoan proposatutako enuntziatuekin edo antzekoekin. Ikasgelako toki bati “erabat ados nago” izena jarriko diogu eta aurrez aurreko tokiari “ez nago batere ados”. Bi toki horiek irudizko lerro batez loturik egonen dira eta horrela adostasun nahiz desadostasun maila desberdinak adierazteko aukera ematen da.

Baieztape desberdinak adieraziko ditugu eta bakoitzak diagonaleko gune batean jartzeko aukera izanen du, nork bere iritziaren arabera. Ikasleak, neskek eta mutilak, isilik egonen dira irakaslea klaseko iritzien mapaz mintzatzen deino. Bukatzeko esanen dugu guztiok ditugula geure arrazoiak eta geure ikuspuntuak iritziaz sortzeko eta ez dela deus makurrik gertatzen kontrakoekin bat ez etortzearekin, izan ere geure ikuspegi aberastu dezakegu besteei entzunez eta geure desadostasuna erakutsi “garaile” atera beharrik gabe.

Gero, gehienek hautatzen duten gaiari buruz, toki desberdinetan kokatutakoei eskatuko diegu nork bere jarrera arrazoitu dezala. Magiazko mikrofo-

noaren teknika erabil daiteke (ikus Programazioa, Metodologia atala).

### **Pentsaera positiboa**

Jarduera honen helburua da ikasleak emozio ez-erak sortarazten duen egoera batean gai izan daitezela pentsaera negatiboa, hasierako emozioa makurrago bihurtzen duena, garatuz erantzun ohi dugula aitortzeko. Aitorpen horretatik abiatuz, senezko pentsaera ezkorra eralda dezakegu, landuago eta positiboago bilakatuz, zeinak emozioa aldatuko baitu eta horrekin gogo-egoera bareagoa lortuko. Era horretan, baldintza hobeagoak izanen ditugu arazo bat egokiro konpontzeko.

### **Berdinak ala desberdinak?**

Honakoa beste harreman-dinamika bat da. Bi zirkuluren laguntzaz, bien artean gurutzagune bat eratuz, bikoteak eratuko dira, elkar biltzen nahiz bereizten dituzten kontuez hitz eginen dutenak. Horiek guztiak idatziko dituzte eta hondarrean bikoteei eskatuko zaie balora dezatela zein diren garrantzi handiko gaiak eta zein txikiagokoak edo batere garrantzirik ez dutenak. Horrek bide emanen digu balioez mintzatzeko: izatea eta edukitzea bereiziko ditugu, bilaketa eta ongizate pertsonala, besteenarekin loturikoa, etab. Jarduerari bukaera emanen zaio azken gida-esaldiari buruzko iruzkin batekin, zeinean talde osoaren parte hartzea eskatzen baita.

### **Sentimen eta emozioen tabua**

Sentimenak hitzez zehaztea hagitik korapilatsua da gatazka bat argitzeko orduan eta, hala eta guztiz

ere, inportantea da horiek identifikatzen laguntzeko. Sentimenen hiztegia hobeki ezagutzeko eta horrekin ohitzeko, domino-jokoaren hiztegiari buruzkoa baino ariketa zailagoa eginen dugu. Hitzekin “tabu-jokoan” arituko gara, hau da, fitxen jokoa (gida honen eranskinean) zeinean hitz bat agertzen den, horren definizioa eta sinonimo bat edo beste. “Sentimenen hiztegiko” fitxa bat emanen zaio ikasleari eta hark esplikatu beharko du hitz hori, baina aipatu gabe, definizioaz baliatuz gehienez ere eta beharrik badu, eta azken aukera sinonimoak aipatzea izanen du. Fitxen hitzak koadernoan ageri dira. Ikasleren batek beharko balu, zerrenda horretara jo lezake.

1. Ikasle bati denbora tarte bat (minutu erdi) utziko diogu bakarka eta isilik irakur dezan eman diogun fitxaren edukia. Bien bitartean, gainerakoak haren inguruan eseriko dira zirkuluerdia eratuz.
2. Fitxa eskutan duenak hitza azaldu beharko du, definizioa handiagotuz edo egoera bat asmatuz, norbait era horretan sentitzen ahal den egoera bat, baina beti ere hitz hori aipatzeke: tabua baita, hots, hitz debekatua. Gainerakoek zein den igarri egin beharko dute.
3. Zirkuluerdiaren hurrenkerari jarraituz, gauza bera eginen da fitxa guztiekin. Ikasleak asper daitezke edo nekatu, hitza asmatzeko denbora luzea ala laburra izatearen arabera. Horrela doala ikusten badugu, hitzartzeak moztuko ditugu eta orduan koadernoko zerrendako hitz batzuen esanahia denon artean komentatzeari ekinen diogu.

### **Mezuak lehen pertsonan**

Trebetasun hori hagitik onuragarria da komunikazioa hobetzeko eta erabili beharko da norberari gogait eragiten dion zerbait adierazteko, baina iraindu, era-

so edo errua egotzi gabe gogait eragin digunari. Horrelako mezuak egiten ahalegintzeak era asertiboan mintzatzen laguntzen du.

Era horretako mezuak beharrian lexiko batzuk ditu eta egitura sintaktiko zehatz bat, ikasleei irakatsiko dizkiogunak testu teoriko xume batean.

Koadernoan egoera desberdin batzuk azaltzen dira eta horien kariaz era horretako mezuak igorri beharko dituzte. Eraldaketa sintaktikoak egin beharrekoak dira egitura naturalagoak gauzatzeko (ikaskuntzan erabiltzen den egitura beharrezkoa da ikuspuntu didaktikotik, baina gero arruntago bihurtu beharko da, oso urrun baitago ikasleen mintzamoldetik).

Gaia zentratzeko lehen jarduera gisa, ikasgeletan ohikoa den egoera batetik abiatuko gara, ikasleen maiztasun handieneko erreakzioak aztertuko ditugu eta alternatibatzat lehen pertsonan eginiko mezuak igortzea proposatuko dugu, adierazpide mota ez oldarkor gisa. Aritzea eskatzen duen trebetasuna denez gero, jarduera entrenamenduko ariketekin burutuko da. Une horretatik aitzina, koadernoko gainerako jardueretan egoera gehiago tartekatuko dira.

1. Egoera hau azalduko zaie: irakasle bat klasera iritsi da, azterketak zuzendurik, eta ikasleei esaten die hiruk besterik ez dutela gaintu, guztiek estudiantu duten arren.
2. "Ideia-jasa" bat sortuko dugu arbelean eta bertan bilduko ditugu egoera horri emanen lizkioketen erantzunak. Ondoren, maiztasun handieneko eta espero izateko moduko erantzunak aztertuko ditugu galdera hauen bitartez: nola sentitzen zarete zuek?, nola sentituko da irakaslea?, uste duzue horrela zerbait positiborik lortuko duzuela?, zuzena al da?
3. "Ni" motako mezuei buruzko informazio testua irakurriko dugu eta horren azalpenak emanen.

4. Ikasleek, neskek eta mutilek, bikoteak edo hirukoak eratuz egiten dituzte ariketak. Hamar minutuko epea eman eta ados jarriko dira behar dena zuzendu ondoren. Eraldaketa egitea inportantea da, zeren, ikasleek erabiltzen dituzten egitura sintaktikoen erreperitorioa zabaltzeaz gainera, bide ematen baitu hizkuntza hurbilagoa eta naturalagoa erabiltzeko.

### **Ni ez naiz isilduko. Besteren sufrikarioarekiko konpromisoa**

Kidekoen arteko tratu txarrak agerian jarri behar dira eta irmotasun osoz arbuia. Tratu txarreko harremanak behingoz eteteko inportantea da mundu guztiak arazo horretan esku hartzea, orientatze lanean ez ezik baita tutoretzan ere, izan ere guztiok eraginik izan dezakegu eta izan beharko genuke gure ikasleak arazo horretaz ohartarazteko.

Gai horri helduko diogu gero osokiago eta sako-nagotik. Oraingo honetan tratu txarren egoera bat planteatzen da, "arina" baina maiz gertatzen dena eta horren aitzinean ikasleek, neskek eta mutilek, azaldu beharko dute nola jokatu luketen, aukera desberdin hauek kontuan izanik: paso egitea, erasotzaileari aurre egitea, bitartekari bat proposatzea... Era horretako egoeretan funtsezkoa da taldea axolagabekeria ez erortzea. Azken iritzia finkatzeko, dilemaren edo magiazko mikrofonoaren teknika erabil daiteke.

Bigarren ariketa bat proposatzen da Madrileko Erkidegoko adingabekoen defendatzailearen bideoa, *Un día más* izenekoa ikusi ondoren. Beste bideo bat, arrunt egokia da Reacciona, Noaingo Elortzibar DBHI-n prestatua (eskura daude

Hezkuntza Departamentuaren Bizikidetzarako Aholkularitzan).

### **Kidekoen arteko jazarpena**

Taldea jazarpenaren arazoaz sentsibilizatzea du xede eta hausnartzea bakoitzak nola joka dezakeen eta zer egin behar ez duen.

Jarduera sail bat da eta jarduera horietan helburu bera lortu nahi da:

#### **A. Liburuzko kartzela ipuinaren irakurketa eta jarduerak:**

**A.1.** Kontaketa honek irakurri aurreko ulertze lana eskatzen du, batez ere kontuan izanik pertsona heldu batek lehen hezkuntzan izandako emakumezko irakasle bati gutun bat idaztea bezalako egoera ez dela oso arrunta. Funtsean protagonistaren bakardadea eta harreman sozialik eza nabarmentzen du, haurtzaroan eta nerabezaroan jasandako jazarpenaren ondorioz. Hala ere, fikzio honek ulertze arazoren bat sor diezaieke ikasleei. Hori dela eta, irakurri aitzin argitzen ahal dugu Hektorrek bere antzinako irakasle andreaki gutun bat idatzi diola (arrazoirik aipatzeke). Motibazio gisa, eskatuko zaie irakurtzerakoan horren zergatia asma dezatela.

**A.2.** Eskatu zaien gutuna idatzi aitzin, on litzateke ikasleek taldean gatazka aztertzea galderen laguntzarekin. Galdera horiek gatazka baten analisiari era desberdineko pentsaerak aplikatzea eskatzen dute:

#### **● Pentsaera kausala: zein da arazoa?, zergatik gertatu da?**

Hektor beldur da berak, mediku gisa, atenditzen duen lehenbiziko eriak barre egiten ez ote dion eta gainera ez dauka bere arazoa kontatzeko mo-

duko inor konfiantzazkorik, aspaldiko emakumezko irakasle bat izan ezik. Hori gertatzen zaio iraganean pairatu zuen jazarpenak markatu duelako.

● **Ondoriozkoa: zer gertatuko zaio Hektorri bere bizitzan eta bere lanean?**

Hektorrek errienganako beldurrez eginen du lan. Bere lanaren arrakastari dagokionez, baliteke beldur horrek eraginik izatea. Horrezaz gainera, harremanik ez izatearen arazoa eta bakardadearena ez ditu konponduko, eta, hortaz, okerrera jo dezake autokontzeptuaren eta autoestimua aldetik.

● **Hautabidezkoa: zenbat irtenbide bururatu zaizkizu?**

- Itxarotea, eriek berataz iseka egiten dutela egia den jakiteko.
- Beste osasun zentro batera aldatzeko eskaera egitea.
- Lantegiko kideren bati laguntza eskatzea sostengu moral gisa.
- Arazoari bakardadean aurre egitea.
- Maite duen pertsona bati laguntza eskatzea, sostengu emozional gisa.
- Psikologo batengana jotzea, gertatu zitzaiona gainditzeko.
- Eriarekin haserretzea eta liskartzea.
- Salaketa jartzea kalte moralengatik.
- Eriak barre egiten badu, jakinaraztea zernolako kalte emozionala egiten dion eta errespetuz hitz egin diezaiola eskatzea.
- Bere burua beste pertsona batzuekin hitz egi-tera behartzea, beldurra kentzeko eta segurtasunez lan egin ahal izateko.
- Beste zenbait.

● **Ikuspuntuarena: jar zaituz Hektorren lekuan irtenbiderik onena zein den baloratzeko.**

Gai honi 2. galderan erantzunen diote.

● **Baliabideak-helburua: zure ustez zer lortu behar du eta zer egin behar du hori lortzeko?**

Arazoaren sorburuari aurre egin eta gainditzea. Horretarako, ahalegin bat egin beharko luke beste pertsona batzuekin harremanetan jartzeko eta, premiarik balu, pertsona aditu baten laguntza bilatu. Hemen eskaintzen diren erantzunak erreferentziak dira, irakasleentzako laguntza bat besterik ez dute izan nahi. Gatazkei irtenbideak bilatzearen gainean ikasleak prestatzeaz denaz bezainbatean, interesgarria litzateke analisi eskema hori klasean sor daitekeen edozein egiazko gatazkatant aplikatzea, horrela automatizatzen eta bizitza errealerara tokialdatzen ahal dute.

**A.3.** Idazlanerako gidoi baten bidez orientatzen ahal zaie, ideak sortzeko eta testuari koherentzia emateko laguntza izan dezaten. Aukera batzuen artean honakoak planteatu daitezke:

- Idatzi ezazu izenburu bat, egokia iruditzen zaizuna.
- Esaiozu Hektorri bere egoera ezagutu duzula honako honen bidez... (asma ezazu).
- Adieraz diezaiozu nola sentitu zaren bere kasuaren berri izatean.
- Antzeko zerbait gertatu bazaizu edo antzeko kasuaren bat ezagutzen baduzu kontatu diezaiozu.
- Emaiozu zeure iritzia edo aholkuren bat, bere egoera gainditzeko laguntzen ahal diona.
- Bururatzen al zaizu hari laguntzeko beste moduren bat?
- Esaiozu agur Hektorri eta sinatu gutuna.

**A.4.** Irakurketaren ondorengo lanerako planteatzen diren gaiei dagokienez, kasua ongi ulertzeko, horietako batzuk badute zerikusirik behar bezala aditzairekin; beste gai batzuen helburua enpatia garatzea da, ikasleak beste pertsonen tokian jarraraziz. Beste batzuk gutunaren edukia prestatzera bideratzen dira.

**B.** Alcalako Unibertsitateko bitartekarien taldeak eginiko komunikatuaren irakurketa. Agiri horretan eskolako jazarpenaren ondorioz beren buruaz beste egin zuten egiazko bi kasu azaltzen dira, hedabideen bidez ezagun egin zirenak. Bi kasu horietaz oroitzea komeni da komunikatua irakurri aitzin.

**C. "Ideia-jasa",** ikaskide garen aldetik zer egin dezakegun eta zer ez jakiteko, "gure lankidetzan" koadroa osatze aldera. Komeni da galdetzea zer alde dagoen salatzearen (informazioa pasatzea, norberaren onerako besteei kalte egiten bazaie ere) eta informatzearen artean (informazioa pasatzea besteren, taldearen edo norberaren onerako baina kalterik inori egin gabe).

**Erasotzaileen eta erasotuen soslaita**

Erasotzaileek eta erasotuek dituzten ezaugarrien zerrenda egitearen xedea da informatzea eta gogoeta eginaraztea gai honetaz sentsibilizatzeko.

Konklusioak ikasturtean zehar errepikatu dugun ideiarekin lotuko ditugu, ihesaren eta erasoaren arteko hautabidean gaudela, alegia: ez ditugu koldarrak gogoko, ezta taldean oilartutakoak ere; ez tiranoak ez menpekotasun osoak; ez ahulen aitzinean harrotzen direnak ezta harroputzekin kikiltzen direnak ere. Kontua da pertsonak humanizatzea, arrunt desberdinak ikusten ditugun arren, eta besteren sufrikarioarekin bat egitea.

**Bitartekotza**

Bitartekotza negoziazio mota formala eta landua da, zenbait kasutan bi alderdiren arteko gatazka bat era positiboan eraldatzeko balio duena. Anitzetan bes-

te esku-hartze batzuk osatzeko sistema bat da. Ez da helburuaren ikuspuntutik soilik ikusi behar, hots, gatazka bat behin betiko konponbidera daraman prozesu bat dela pentsatzea, baizik eta, gatazka eraldatu den edo ez kontuan hartu gabe, alderdien arteko harremana ere aldatzen duen prozesu bat dela. Bitartekotzan parte hartzen duena konturatzten da, beste ezeren gainetik, onuragarria dela gatazka argitzeko eta akordioetara iristeko ez ezik, baita ikasitakoa egoera berrietara proiektatu ahal izateko ere.

Gatazka konpontzeko estilo gisa elkarrizketa eta lankidetzaren sustatzen laguntzen du. Eta hori ez da gutxi. Bitartekotzari ezin zaio eskatu zigorraren bidez konpontzen ez diren egoerak konpon ditzala. Bide horrekin alderatuta duen abantaila da, hain zuzen ere, bere hezkuntza-balioa.

Bitartekotza arloko prestakuntzak ahalmen handia du giro baketsua sortarazteko, jarrerak garatzeko eta, orobat, garapen pertsonalerako lagungarri izan daitezkeen eta eskolako giroa hobetu dezaketen trebeziak eta teknikak ikasteko

Bitartekariak prestatze aldera, J.C. Torregoren eskuliburutik (2000) egokitutako hiru faseko eredu proposatzen dugu: bitartekotza aurrekoa edo alde aurreko elkarrizketa, alderdi bakoitzari, bakarka, egitokia, bitartekotza saioaren garapena eta iritsitako akordioak betetzen diren berrikustea. Koadernoan erabilitako material batzuk aipatu eskuliburutik ateratakoak dira edo egokituak.

Bitartekotza faseak eta teknikak astiro aztertuko ditugu eta adibideak jarriko Madrilgo UNEDeko Bitartekaritzaren bideo batekin (eskura dago Hezkuntza Departamentuko Bizikidetzaren Aholkularitzan).

Lehenengo ariketa bitartekotza simulatua egitea izanen da, “bitartekotzarako gida” laguntza gisa erabiliz. Bitartekariak nabariak ezagutuko ditugu, horrelakorik egin ez ditzaten, eta bitartekari batentzat egoera zailak irudikatuko ditugu eta horiei nola erantzun behar zaien.

Bitartekotza informala, berezkoa eta puntuala ere landuko dugu, berehala erantzun beharreko egoeretan egin daitezkeenak.

Lanaren bukaeran Bitartekariak Taldearekiko konpromisozko orria bete da eta, sinatzen duena, Talde horren partaide egingen da ikastetxeko Bitartekotza eta Gatazka Konpontzeko Taldeak bitartekariak hautatzeko ezarri duen irizpidearen arabera. Esan nahi baita, aurrena, ikaslearen aldetik borondatea eta konpromisoa beharrezkoak dira, baina gero, ikasturtean lortutako trebezia maila kontuan hartuz, bitartekariak hautapena egingen da.

### ***Ikaskide laguntzaileen soslaiak***

Ikasleek laguntzen ahal dute ikastetxean bizikidetzaren hobetzeko, Bitartekariak Taldeko partaide eginez, baina, halaber, laguntzaile gisa taldearekin lan egin dezakete klase berean. Alde horretatik, jardura bat proposatzen da, besteei lagundu nahi diren ikasleak nolakoak behar duen izan eta zer egin behar ez duen ezarriko duena. Horretarako, parte-hartzaileek txanda librean esanzen dute zein diren laguntzeko garaian izan ditzaketen arazoak eta zein liratekeen atera ditzaketen eta besteei eskaintzen ahal dizkien etekinak. Irakasleak ekarpenak arbelean idatziko ditu eta emaitzak aztertuko dira.

Ondoren “laguntzaileen soslaiak” izeneko koadroa irakurri eta horren gaineko iritzia eskatuko dugu.

### ***Ikasle laguntzaileen sarea eratzea***

Ikaskide laguntzaileen sare bat, kurtsoko talde gutzietako neska-mutuez osatua, antolatzen saiatuko gara. Bizikidetzari buruzko prestakuntza hartzen ikaslearen parte handi bat ohartuko da konpromiso sozialerako eta besteei laguntzeko berezko joera duela.

Koadernoan egin behar eta eginkizun jakin batzuetarako prestasuna neurtzeko inkesta bat dago, ikasleek bete daitezkeenak; horren kariaz, zer egiteko prest dauden, huraxe markatuko dute.

Gure iritziz ikasleek proiektzio sozialaren premia handia dute; lagundu nahian dabilta, baina ez dute egiten, nola egin ez dakitelako edo gainerako ikasleek beraietaz izan dezaketen irudiaren beldur direlako. Bi arazo horiek aurreikusteko ahaleginak egingen dira kurtsuan barna.

### ***Garapen etikoaren etapa***

Irizpide moralak finkatzeko bidean, Kohlbergek dioenez, pertsonak bizitzan zehar sei fase igarotzen dituzte. Baina guztiak ez dira seigarrenera iristen, gizarterako helduenak eta positiboak bakarrik. Aldien arteko mugak ez dira finkoak, gorabeherak daude, atzerako higidurak eta aurrerakoak. Gainera, arlo batzuetan fase batean egon gaitezke eta beste batzuetan, ordea, beste batean. Ondoren adierazten den mugaketaren asmoa esplikazioaren xede didaktikoei erantzutea da.

#### ***Lehen fasea Heteronomia (5-6 urte bitarte)***

Ez dago kontzientzia moralik. Ongia eta gaizkia zertan daudenak besteek erabakitzen dute eta subjektuak bere ekintzen ondoriozko zigorraren edo sariaren



arabera jarduten du. Haurrak bere ekintzen ondorioak nolakoak diren, halaxe juzgatzen du. “Gelditzen ez banaute, nahi dudana eginen dut”. Lehen maila gainditu ez duten nerabeek eta helduek izan dezaketen pentsamolde delinkuentea da.

Haurrak delinkuenteekin konparatzea ez da atsegina, horregatik batzuen eta besteen artean alde handiak daudela argitu behar da: haurren heteronomia moral-aurrekoa da eta seguru aski iragankorra; gaizkileena, ordea, amoralia ez ezik anitzetan behin betikoa ere izan ohi da.

### **Bigarren fasea** **Elkarrekiko berekoikeria (11 urte bitarte)**

Zerbait ongi dago baldin eta etekina badakarkit eta, inoiz edo behin, besteei badakarkie. Zuzentasuna materialtasunari soilik aplikatzen zaio: “honenbeste ematen didazu, honenbeste emanen dizut”, “nola hartzen nauzun horrela hartuko zaitut” (talionaren legea edo begia begi truk). “Ona izanen naiz baldin eta nirekin ona bazara, bestela, ez daukat irizpide moralik: justifikatua ikusten dut min egitea”. Jokamolde makurra dirudi, baina ez da hainbestearino, “eusten” duelako: “arkatza kentzen badidazu borragoma kenduko dizut, baina ez zaitut joko, jotzeko irrikitan banago ere”. Pertsona heldu askori esaldi hau itsatsirik gelditu zaie (“fabore bat egiten badizut nirekin zorretan gelditzen zara”). Fase honetan bada elkarrekin bizitzerik, aurrekoan ez, batek defendatzeko ahalmenik ez badu.

### **Hirugarren fasea** **Pertsonarteko itxaropenak (12-20 urte bitarte)**

Ona da besteei gustatzen zaiena. “Ongia egiten dut besteek aintzat har nazaten”. Asmoengatik baloratzen den jokabidea da. Ingurune sozial batean sartzeko gogo sortzen da. “Miragarri izan nahi dut,

baina hautatzen dudan taldean soilik”. Hortan datza pertsona batek aurpegi desberdinak izatearen arrazoiak. Horrek egonezinak sortzen ditu familian eta eskolan, batzuen eta besteen itxaropenak ez baitatoz bat. Adibidez, Luisen familiak alkoholik ez edateko eskatzen badio ere, haren lagunek edanen duela espero dute.

Fase honek kidekoen harremanak bederen errazten ditu. Fase horretan gelditzen direnak, heldutasunera iristean laguntzeko prest dauden pertsonak izaten dira, adeitsuak eta liskar gutxikoak. Baina besteen gorespenaren zai egon ohi dira eta kritikek lur jota uzten dituzte. Modak eta kontsumismoak eragin handia dute horiengan. Ezarritakoari egokitzen zai-zkio, behin ere ez dutelako nahi ezjakintzat har ditzaten.

### **Laugarren fasea** **Erantzukizuna eta konpromisoa**

Kontzientzia soziala, autonomia eta heldutasun moralak sortzen dira. Eginbeharra betetzea baloratzen da, agintea eta ordena moralak onartzen dira, nahiz eta hori guztia hurbileko ingurune sozialera mugatzen den (familia, lana, lagunak). “Ona da ni eta nire ingurukoak ongi izaten laguntzen diguna”. Beraz, nor bere buruarekin eta besteekin obligatzen dira, saririk ez izanda ere.

### **Bosgarren fasea** **Kontratu soziala**

Aitortzen da guztiek dituztela eskubideak eta ondorioz horrela jokatzeko da: guztiek izan ditzatela bizitza eta askatasuna. Horrek norberekoikeria eta hurbileko ingurunea gainditzea esan nahi du. “Jardun nahi dut mundu guztiaren onerako”. Guztien ongiaren bila jarduteko irizpidea gizarte batean adosturiko balioetan oinarritzen da.

### **Seigarren fasea** **Printzipio etiko orokorrak**

Pertsona orok kontzientziaren arabera hartzen duen erabakia zuzena da, printzipio orokor hauek kontuan hartuz: justizia, eskubide berdintasuna, elkarrekotasuna, pertsonen duintasuna... Egintza onak norberaren eta besteen zoria bilatzera eramaten du. “Besteengatik eginen dut besteek nigatik egin zezaten nahiko nukeena, aitortzen baitut besteen eskubideak nireak bezain errespetagarriak direla”.

DBHren bukaeran, ikasleak bigarren fasearen eta hirugarrenaren artean egon ohi dira, eta batzuk laugarrenera igarotzen. Hezkuntza-lanaren helburua mailaz igoaraztea izan beharko litzateke, lehenengoan gera ez daitezen.

Fase horien berri (batez ere lau lehenak) ikasleei ematea interesgarria da didaktikaren aldetik, aukera ematen dielako beren burua gutxi gorabehera prozesuaren une batean kokatzeko eta etikaren jabetze prozesua zerbait aldakorra dela ulertzeko, eta prozesu horretan gizaki bakoitzak egiten ahal duela aitzinera. Garapen moralaren gaineko informazioa azaltzea ez da beharrezko, inportanteena da ikasleak hautatzeko kinkan jartzea, dilema moralekin ariketak eginez.

Jardueraren baitan jokotxo bat dago, zeinean ondorengo esaldiak, ordenarik gabe, eskaintzen baitira. Hautatu behar dituzte besteekiko harremanetan duten jokamoldea erarik zehatzenean islatzen duten esaldiak. Behin eta berriz esan behar zaie, eta hori hagitz inportantea da, hautatu behar dituztela nolakoak diren adierazten duten esaldiak eta ez nolakoak uste duten direla adierazten dutenak.

Gero hautaturiko esaldiei dagozkien zenbakiak irakurriko dira, nor bere ondorioak atera ditzan. Ez zaie ondorioak ozenki esatea eskatuko, baina nahi duenak zilegi du horrela egitea.

1. ● **Geldiarazten ez banauzu nahi dudana eginen dut.**
  - Niretzat soilik onura edo atsegina dakarkidana da ona.
2. ● **Min egiten badidazu, eskubidea dut zuri antzeko mina egiteko.**
  - Hartzen nauzun era berean hartuko zaitut.
3. ● **Xarmagarria naiz baina gustuko dudan jendearekin. Gainerakoak bost axola niri.**
  - Ongia egiten dut baina ni onar nazaten soilik.
4. ● **Besteen eskubideak errespetatzen ditut eta eginbeharrak arduraz neureganatzen ditut.**
  - Ene ingurukoek eskubideak dituzte, neronek bezala.
5. ● **Ongiak ongi sentiarazten nau, bai eta besteak ere.**
  - Ene ustez guztiek dituzte eskubideak, ezezagunak badira ere.
6. ● **Nik neure eginbeharrak betetzen ditut eta besteen eskubideak defenditzen.**
  - Besteen alde egiten dut besteek nigatik egitea gustatuko litzaidakeena.

## Kurtsoaren ebaluazioa

Mesedez, eman 1etik 4ra puntu ondorengo ataletan, baremo honi jarraikiz:

- 1 Gaizki-txarra-gutxi-egokia
- 2 Hala-holakoa-zerbait
- 3 Ongi-ona-aski-egokia
- 4 Oso ongi-osoa ona-asko

1 2 3 4

- |   | 1 | 2 | 3 | 4 |
|---|---|---|---|---|
| 1. Kurtsoko edukiak hauek izan dira...                            |   |   |   |   |
| 2. Jarduerak honelakoak iruditu zaizkizu...                       |   |   |   |   |
| 3. Erabili diren materialak hauek...                              |   |   |   |   |
| 4. Jardueretan izan duzun parte-hartzea hauxe...                  |   |   |   |   |
| 5. Ikaskideekiko harremanak hauexek...                            |   |   |   |   |
| 6. Irakaslea zera iruditu zaizu...                                |   |   |   |   |
| 7. Hemendik aurrera bizikidetzan jarduteko zure interesa hauxe... |   |   |   |   |
| 8. Ikasi duzunak ikastetxean esku hartzeko gaitzen zaitu          |   |   |   |   |
| 9. Zure ustez klaseko bizikidetzaz-giroa hobetu da                |   |   |   |   |
| 10. Kurtso hasieran zenukan ideia bete da                         |   |   |   |   |

Esan zer aldatuko zenukeen heldu den urterako:

Esan zer ez zenukeen aldatuko:

## ASPERTURIK

Ez dut estimulurik edo dibertsiorik.  
Denekin nekatzen naiz

*Motibaziorik gabe, nekatua*

## DESEROSO

Ez naiz eroso sentitzen, are nire giro natural  
eta berezkoan ere. Zerbaitak kezkatzen  
eta urdurijartzen nau

*Tentsiopean*

## LOTSATUA

Lotsa ematen didan zerbatetatik larri  
eta kikiidurik sentitzen naiz, besteek  
niraz barre egjin dezaketelakoan

*Lotsagorritua, irrigarri*

## ALAI

Ongi sentitzen naiz niretzat atsegina  
edo ona den zerbaiz gertatu zaidalako

*Pozik, alaitasunez beterik*

## LASAI

Lasai sentitzen naiz, urduritasunik  
ez larrialdirik gabe

*Lasai, bakean, arindua*

## BEKAIZTIA

Besteak duena nahi dut niretzat, edo beste  
bati niri baino hobekiago dihoakiola jakiteak  
gogait eragiten edo amorrua ematen dit

*Jeloskor*

## NAHASI

Gauzak ezin ditut ezogutu edo aztertu  
nahastan zaikidalako. Errealitatea  
ez dut argi ikusten

*Nahasi-rik, segurtasunik gabe,  
itsuturik, zalantzan, trabatua*

## TRAIZIONATUA

Nik konfiantza norbaitengan jarri  
eta hark ideltasuna eta konfiantza hautsi  
didalako dakusat

*Engainaturik, ilusiorik gabe*

## KEZKATUA

Urduri nago, makurren bat gertatuko  
ote zaidan beldurrez

*Estu eta larri, etsita, lur jota*

## LOTSATIA

Jendaurrean agertzeko, aritzeko edo hitz  
egiteko beldurrez edo lotsaz nago

*Herabetua, bere baitan bildua, estu*



## KALTEETUA

Egin didaten kaltearen ondorioak  
gelditzen zaizkit. Eskubidez zegoikidan  
zerbait galdu dut

*Gaizkitua*

## HARROPUTZA

Kontent nago nire portaerarekin

*Bururiritzia*

## AUSARTA

Moral aldetik sendo nago, arazoai  
edo arriskuiei aurre egiteko prest

*Ausarta, deliberatua*

## HASERRE

Gaitziturik nago egin didaten  
edo gertatu zaidan zerbaitegatik

*Gaitziturik, amorratua, sumindurik*

## ERASOTUA

Norbaitek, jakinaren gainean, min egin dit

*Erasotua*

## ARBUIATUA

Sumatu dut bestek ez nautela maite ez eta  
deusetarako kontatzen ere  
*Bakartua, harremanik gabe,  
baztertua, bakarti, abandonatua,  
mespretxatua*

## MENDEKABERA

Beharrezkoa dut egin didaten kaltearen  
ordaina ematea

*Herratsua, erresumindua*

## ZORITXARREKOA

Ez dut zorterik, dena gaizki ateratzen zait

*Zoritxarrekoa*

## MAITEKORRA

Besteoi nahitasuna diet eta halaxe  
erakusten dut

*Txeratsua, amultsua*

## ILUSIONATUA

Itxaropen erakargarriak ditut

*Liluratu, itxaropentsu*

## HARRITUA

Zerbaitek ezustean harrapatu nau,  
ez nuelako aurreikusten, espero ez nuelako  
*Harriturik, miretsirik, txundituta*

## MINDUA

Zerbaitek edo norbaitek min egln dit  
*Nahigabetua, mindua, iraindua*

## AHALMENIK GABE

Ez naiz deus egiteko gai, ez baitakit zer  
egln ere, ezin dudala uste dut  
*Paralizatua*

## IKARATUA

Desatsegina edo arriskutsua den zerbaitek  
ustekabea atxeman nau  
*Koldarra, beldurtia*

## UMILDUA

Beste norbaitek gutxietsia sentitzen naiz,  
apaldua, deusez harrotu ezinik  
*Mespretxatua*

## HUNKITUA

Samurturik sentitzen naiz, kupidazko edo  
samurtsunezko sentimenduak ditut  
*Sentibera, atsekabetua, kezkatua*

## ULERBERA

Gai naiz besteiei ulertu eta haien lekuan  
jartzeko  
*Jasanbera*

